

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia

JARDUERA
MEMORIA

2013

Arreta-baliabideen eta programa espezifikoaren katalogoa

Online dokumentu-kudeatzailea

Informazioa kudeatzeko sistema integrala

Udalernetako Informazio Orria
Gomendioak

Baliabideen Atlasa

Zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan

Kanpo-harremanak
Webgune
Baliabideen mapa

OVGB/BGIB informazio-buletina
Ebaluazioa

AURKIBIDEA

	Or.
■ Aurkezpena.....	2
■ Zer da Behatokia?.....	3
■ Kideak.....	4
■ Araudia.....	9
■ 2013-2017ko Lan Plana.....	10
■ BGIBk 2013an egindako jarduerak.....	15
• Osoko bilkurak.....	16
i. 2013ko irailaren 27ko bilera	
• Adierazleei buruzko lantaldea.....	17
i. 2013ko urtarrilaren 17ko bilera	
ii. 2013ko otsailaren 7ko bilera	
iii. 2013ko otsailaren 28ko bilera	
iv. 2013ko martxoaren 19ko bilera	
v. 2013ko apirilaren 12ko bilera	
vi. 2013ko apirilaren 29ko bilera	
vii. 2013ko ekainaren 10eko bilera	
viii. 2013ko urriaren 31ko bilera	
• Kanpo-harremanak.....	21
• Webgunea.....	22
• Udal Harremanetarako Sarea.....	26
• Informazioa kudeatzeko sistema osoa.....	27
• Baliabideen mapa.....	29
• Baliabideen atlasa.....	31
• Bizkaiko Lurralde Historikoko zifrak.....	33
• Indarkeria pairatzen duten emakumeentzako Bizkaiko laguntza-baliabideen eta berariazko programen katalogoa.....	35
• Udalerrietako Informazio Orria.....	38
• On line dokumentu-kudeatzailea.....	40
• BGIBren informazio-buletina.....	42
• Indarkeriaren arloan erakundeen jarduera hobetzeko gomendio eta proposamenei buruzko II. txostena.....	45
• BGIBren 2009-2012ko ebaluazioa.....	47

Aurkezpena



Lehentasuna eta arreta ematen diogu 2013an Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak (BGIB) egindako jarduerari. Izan ere, jarduera horien bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen kontrako indarkeria zer egoeretan dagoen jakin nahi dugu, bai eta zer bilakaera duen ere, gertatutako aldaketak aztertu ahal izateko, eta gomendioak eta proposamenak egiteko, Bizkaian genero-indarkeria prebenitzea eta arintzea helburu duten zerbitzuen eta laguntzen eskaintza hobetze aldera.

Behatokiari dagokio genero-indarkeria pairatzearen ondorioz arreta jaso duten pertsonen kopuruari eta ezaugarriei buruzko datu fidagarriak ematen dituzten prozedurak baliatzeko zeregina dinamizatzea eta koordinatzea, urteko eta sei hileko datuak biltzearen bitartez, eta gaur egun dauden prestazioen idiosinkrasia bermatzea.

Prozesu horrek sortzen dituen datuak txostenen bidez hedatzen dira, eta txosten horietan emakumeen aurkako indarkeria-egoeretan emandako arretaren bolumenari buruzko zifrak ageri dira, hainbat ingurutan jasotako informazioak oinarri hartuta. Halaber, esparru autonomikoan, foru-eremuan, udaletan eta mankomunitateetan kudeatutako baliabideek eragin duten jardueraren berri ere ematen dute txostenek.

Arreta emateko bere baliabideak dituen erakunde bakoitzari berariazko sei hilez behingo txostena (“Udalerrietako Informazio Orria”) helarazten dio Behatokiak, urteko lehen sei hilekoari buruz eman duen informazioaren truke, hura antolatu ondoren, eta azkenaldiko bilakaera ere azaltzen dio. Aurten ere, prozesu horretan inplikaturako udal eta mankomunitate bakoitzak berariazko txostena jaso du, azaroaren 25eko oroitzapenen aurretik.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren Lan Plana (2013-2017) argitaratzeaz gainera, “II. txostena: Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeek jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” hedatu da, bai eta “Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren ebaluazioa, 2009-2012ko epealdia” azterlana ere. Horrenbestez burutu dira 2012an hasitako bi prozesuak, biak ere ziklo berri bati ekiteko oso elementu interesgarriak eman dizkigutenak.

Horrenbestez, esate baterako, poztan gara Behatokiaren organigraman sartu direlako osasunaren alorreko eta hezkuntzaren esparruko eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako sailak, aurreko epealdiko ebaluazioan adierazitakoaren ildotik. Halaber, pozgarria da gure erakundeak Europako esparruan esku hartzeko eta hedatzeko aukerak bilatzeari buruz hartutako erabakia, bai eta profesional gailenek BGIBren buletinean egindako ekarpen teorikoak ere.

Horiek horrela, berriro goraipatu behar dugu Udal Harremanetarako Sarearen jarduna, bai eta Behatokia emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoaren kontrako hausnarketarako eta ekintzarako topagune izan dadin laguntzen duten erakunde guztien parte-hartzea ere.

*Pilar Ardanza Uribarren
Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren presidentea
Gizarte Ekintzako Foru Diputatua*

Zer da Behatokia?

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia kide anitzeko erakundea da, eta aholkularitza-lanak egiten ditu. Martxoaren 18ko [53/2003 Foru Dekretuaren](#) bidez eratu zen; azaroaren 9ko [188/2004 Foru Dekretuak](#) aldatu zuen haren osaera, bai eta otsailaren 2ko [5/2010 Foru Dekretuak](#) ere, eta berriki, maiatzaren 21eko [75/2013 Foru Dekretuaren](#) bidez aldatu da berri.

Hauxe da erakundearen xedea: informazio-sistema bat sortzea emakumeen kontrako indarkeriak Bizkaiko Lurralde Historikoan duen egoerari eta erakundeek esparru horretan gauzatzen dituzten politikek duten eraginari behatu, hura aztertu eta haren jarraipena eginahal izateko. Horren guztiaren xedea da jarri diren baliabideak benetako beharretara egokitzea.

Behatokiak bi helburu nagusi aintzat hartzen ditu:

1. Emakumeen kontrako indarkeriak Bizkaian zer egoera eragiten dituen eta zer bilakaera duen jakitea, gertatutako aldaketak aztertu ahal izateko.
2. Gomendioak eta proposamenak egitea, Bizkaian genero-indarkeriaren alorrean gauzatzen diren zerbitzuen eta laguntzen eskaintza hobetze aldera.

Bi helburu horiei jarraituz, honako hamar zeregin hauek ditu Behatokiak:

1. Aplikazio informatiko bat diseinatzea, abiaraztea eta mantentzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko genero-indarkeriako egoerei buruzko datuak biltzeko.
2. Genero-indarkeriako egoeretan laguntza emateko esparruetan eskuragarri dagoen informazioa biltzeko eta haren analisia egiteko organo iraunkorra izatea.
3. Gomendioak eta proposamenak ematea, emakumeen kontrako indarkeriaren arloko zerbitzuek erabiltzen dituzten adierazleak eta informazio-sistemak hobetzeko.
4. Antzeko beste erakunde batzuekin harremanetan egotea eta lankidetzan jardutea. Beste administrazio batzuek zer esperientzia eta berrikuntza hasi eta proposatu dituzten jakitea.
5. Diagnosiak eta ebaluazioak egiteko azterketa eta txosten teknikoak egitea proposatzea genero-indarkeriako egoeren irismenaren eta bilakaeraren gainean.
6. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako neurri integralak egokiak diren aztertzea; horretarako, zer ondorio eta eragin dituzten ikertu behar da, eta jardunbide egokiak ereduak aztertu.
7. Gomendioak eta proposamenak egitea, Bizkaian genero-indarkeriaren alorrean gauzatzen diren zerbitzuen eta laguntzen eskaintza hobetze aldera, eta horiek guztiak dagozkien erakundeei helaraztea.
8. Trukerako eta komunikaziorako foro bat eratzea; horrenbestez, genero-indarkeriaren arloko ikerketa-taldeek errazago egingo dituzte ikerketak eta azterketak.
9. Urtero Behatokiak gauzatutako jardueri buruzko txosten bat egitea, eta Bizkaiko Batzar Nagusiei helaraztea.
10. Antolatze eta funtzionatzeko barne-araudia lantzea.

Kideak

Administrazioko hiru mailetakoa—autonomia-erkidegokoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-esparrukoa eta tokikoa— erakundeen ordezkariak biltzen dira Behatokian, bai eta emakumeen elkarteetakoak ere. Kide diren erakunde guztiek emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan ekimenak koordinatzeko estrategiak aplikatu eta baliabideak bideratzeko konpromisoa hartu dute.

2013an, egiturazko aldaketak egin dira, eta, hortaz, honela osatuta geratu da Osoko Bilkura ekitaldiaren amaieran:

■ PRESIDENTEA

Gizarte Ekintzako Foru Diputatua

Maria Pilar Ardanza Uribarren andrea

■ PRESIDENTEORDEA

Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia (BFAko Gizarte Ekintza Saila)

Mercedes Muñiz Estancona andrea, Gizarteratzea Sustatzeko zuzendari nagusia

Ordezkoa: Sergio Murillo Corzo jauna, Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko zuzendari nagusia

■ IDAZKARIA

Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia (BFAko Gizarte Ekintza Saila)

Berta Díaz Arbesú andrea, Emakumearen Ataleko burua

Ordezkoa: Amaia Antxustegi Ziarda andrea, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuko Administrazio Orokorreko Teknikaria

■ MAHAIKIDEAK

Bizkaiko Foru Aldundia

■ Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila

Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia

María Dolores Menchaca Araluze andrea, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuko burua

Ordezkoa: María Elena Iturrizaga Larrabeiti andrea, Plangintzako eta Ikerlanetako Zerbitzuko burua

Bizkaiko Foru Aldundiko 70/2012 FORU DEKRETUAK, apirilaren 3koak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren araudi organikoa onesten duenak, adierazitakoari jarraituz, "Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren xedea da, bere egoera pertsonalagatik, sozialagatik edo familia-egoeragatik, bizitza normala, duina eta osoa garatzeko arazoak dituzten herritarrei zerbitzuak ematea: mendetasuna duten pertsonen, babes-gabezia egoeran dauden edo tratatu txarrak jasan dituzten emakumeen eta adingabekoen eta gizartean baztertuta dauden edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen. Horretarako, giza garapen iraunkorra sustatzen du, eta, beraz, genero politikak eta lankidetzak eta garapen politikak diseinatzen ditu".

■ Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila

Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia

Xabier Legarreta Gabilondo jauna, Berdintasunerako zuzendari nagusia

Ordezkoa: Cristina Sarduy Gainza andrea, Genero politiken idazkari teknikoa

Bizkaiko Foru Aldundiko 70/2012 FORU DEKRETUAK, apirilaren 3koak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren araudi organikoa onesten duenak, adierazitakoari jarraituz, "Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren xedea da, bere egoera pertsonalagatik, sozialagatik edo familia-egoeragatik, bizitza normala, duina eta osoa garatzeko arazoak dituzten herritarrei zerbitzuak ematea: mendetasuna duten pertsonen, babes-gabezia egoeran dauden edo tratatu txarrak jasan dituzten emakumeen eta adingabekoen eta gizartean baztertuta dauden edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen. Horretarako, giza garapen iraunkorra sustatzen du, eta, beraz, genero politikak eta lankidetzak eta garapen politikak diseinatzen ditu".

■ **Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Saila**

Anselmo Ardanza Sustatxa jauna, Funtzio Publikoko zuzendariordea

Ordezkoa: Miren Begoña López-Uribarri Goikolea andrea, Langileen Zerbitzu Juridikoko burua

Bizkaiko Foru Aldundiko 15/2012 FORU DEKRETUAK, otsailaren 14koak, Lehendakaritza Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onesten duenak, ezarritakoari jarraituz, foru-departamentu horri eskumenak aitortzen zaizkio Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioan, honako arlo hauetan: udal-harremanak, hirigintza, lurralde-antolamendua eta herri-administrazioa.

■ **Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Saila**

Izaskun Artetxe García andrea, Enpresa Sustapeneko Zerbitzuko burua

Ordezkoa: Juan José Duque Murua jauna, Informazio Egituren Ataleko goi-mailako teknikaria

Honako eginkizun hauek dagozkio, beste jarduera-eremu batzuez gain, Ekonomia Sustapeneko Sailari: Bizkaian enplegua sustatzea eta gizarte-egoera ahulean dauden kolektiboen enplegua bultzatzea; Bizkaiko langabetuei prestakuntza ematea gizarteratzen eta lan-munduan sartzen laguntzeko, eta pertsona horien gaitasunak eta potentzialtasunak hobetzea; kolektibo behartsuetako pertsonen prestakuntza; azpiegitura industrialak sortzea, enplegua sortzen lagun dezaten, eta Bizkaiko turismo- eta arrantza-sektoreetan azpiegitura estrategikoak sortzea; eta prestakuntza- eta enplegu-gaietan jarduten diren beste administrazio eta gizarte-eragile batzuekin harremanak izatea eta koordinatzea.

Eusko Jaurlaritzza

■ **Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundea:**

Izaskun Landaia Larizgoitia andrea, zuzendaria

Ordezkoa: Raquel Raposo Acevedo andrea, Programak eta Prestakuntza Sailaren arduraduna

Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundea erakunde publikoa da, eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren Idazkaritzari atxikita dago. Gizarte-, politika-, ekonomia- eta kultura-arlo guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzearen alde lan egiteko sortu zen. Gure erkidegoan sortzen diren sexuaren arabeko diskriminazio- eta desberdintasun-egoerak aztertzeako tresna da, eta, hori oinarri hartuta, zuzenketa-neurriak bultzatzea du helburu.

Lehendakariaren 34/2013 Dekretuak, abenduaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duenak, lehenengo artikuluan adierazitakoari jarraituz, “Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitzen zaizkio ezabatutako Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren egitekoak, giza baliabideak eta baliabide materialak, bigarren xedapen gehigarrian Herri Administrazio eta Justizia Sailari esleitutakoak izan ezik, eta laugarren xedapen gehigarrian Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari esleitutakoak izan ezik”.

■ **Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila**

Ana María Reka Esparza andrea, Sailburuaren Kabineteko zuzendaria

Ordezkoa: Gervasio Gabirondo Fernández jauna, Ertzaintzaren zuzendaria

Lehendakariaren 20/2012 Dekretuak, abenduaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duenak, bigarren artikuluan adierazitakoari jarraituz, “Segurtasun Sailari dagozkio eskumen hauek: Autonomia Erkidegoko polizia; hauteskunde-administrazioa; babes zibila, eta larrialdiei aurre egitea; Autonomia Erkidegoko errepideetako trafikoko polizia; joko, apustu eta ikuskizunak; segurtasun-arloko transmisio eta komunikazioak; polizia-ibilgailuak; meteorologia; sailari atxikitako erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta baltzu publikoak (Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia) zuzentzea, legeen eta araudien arabera; eta legeek eta araudiek eman diezazkieten gainerako ahalmenak.

■ **Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saila**

Manuel Valín López jauna, Justizia zuzendaria

Ordezkoa: Roberto Moreno Álvarez jauna, Helduen Justizia Zerbitzuko burua

Lehendakariaren 34/2013 Dekretuak, abenduaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duenak, bigarren artikuluan adierazitakoari jarraituz, “Herri Administrazio eta Justizia Sailak hartuko ditu emakumearen aurkako indarkeriaren biktimei zuzenean arduratzeko egitekoak”.

■ **Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila**

Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria

Ordezkoa: José Luis Madrazo Juanes jauna, Familia Politika eta Komunitate Garapenerako zuzendaria

Lehendakariaren 34/2013 Dekretuak, abenduaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duenak, hirugarren artikuluan adierazitakoari jarraituz, "Enplegu eta Gizarte Politiketako sailari atxikitzen zaizkio Genero Indarkeriaren Biktimentzat Telefono Bidezko Arreta Zerbitzua, ordainketa bakarreko diru-laguntzak eta emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei arreta eskaintzen dien profesionalen aholkua eta laguntza emateko kudeaketa integratua, baita horiei dagozkien giza baliabideak eta baliabide materialak".

■ **Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila**

M. Jesús Gemma Múgica Anduaga andrea, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu

Orokorretako zuzendaria

Ordezkoa: Fátima Ansotegi Elordi andrea, Sailburuaren Kabineteko zuzendaria

Lehendakariaren 20/2012 Dekretuak, abenduaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, eta 195/2013 Dekretuak, apirilaren 9koak, Osasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, ezarritakoei jarraituz, Osasun Sailari dagozkio eskumen hauek: sanitarearen plangintza eta antolamendua; osasun publikoa eta elikadura-higienea, zainketa epidemiologikoa, farmazia-antolamendua; kontsumoa; droga-menpekotasunak; sailari atxikita dauden erakunde autonomiadunak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak zuzentzea, legeek eta araudiek ezartzen dutenaren arabera.

■ **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura**

Begoña Garamendi Ibarra andrea, Hezkuntza Berrikuntza zuzendaria

Ordezkoa: José Manuel Bufanda Arizmendi jauna, Kabineteko zuzendaria

Lehendakariaren 20/2012 Dekretuak, abenduaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, eta 193/2013 Dekretuak, apirilaren 9koak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, ezarritakoei jarraituz, Osasun Sailari dagozkio eskumen hauek: irakaskuntzaren alorrean Autonomia Estatutuan ezartzen diren eskumenak, bai erregimen orokorrekoak, bai erregimen berezikoak, etapa eta maila guztiak barne direla, eta goi-mailako hezkuntza, bai eta bizitzan zehar kualifikazioak eskuratzea edo areagotzea dakarten ikaskuntza-jarduerak ere; lanbide-heziketa osoarentzako planifikazio estrategikoa, diseinua eta jarraibideak, heziketa horrek bizitzan zehar kualifikazioak eskuratzea edo emendatzea ekarriko du, eta hartarako Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzari baliatuko da, betiere zerbitzu horren erantzukizunaren barruan; zientzia-alarreko politika; ikerketa teoriko zein aplikatua sustatu eta koordinatzea; hizkuntza-politika; euskara sustatzea; historia- eta arte-ondarea kudeatu eta zaintzea; museo, liburutegi eta artxibategiak; artearen eta kulturaren arloko jarduerak eta horien zabalkundea; kirolak; gazteria; gizarte-hedabideak; irratien kontzesioak eta frekuentzien esleipena; sailari atxikita dauden erakunde autonomiadunak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak zuzentzea, legeek eta araudiek ezartzen dutenaren arabera; eta legeek eta araudiek eman diezazkizoten gainerako ahalmenak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrriak eta mankomunitateak

■ **Abadiñoko Udala**

Yanire Moreno Manzano andrea, zinegotzia

■ **Ermuko Udala**

Natividad Alonso Estalayo andrea, zinegotzia

Ordezkoa: Amaia Rojas Ruiz andrea, Barakaldoko zinegotzia

■ **Galdakaoko Udala**

Ibon Uribe Elorrieta jauna, alkatea

Ordezkoa: Jane Eyre Urkieta Zuzaeta andrea, Foruko alkatea

53/2003 Foru Dekretuak, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu zuenak, ezarritakoari jarraituz, EUDEL – Euskal Udalerrien Elkarteak izendatuko ditu Bizkaiko Lurralde Historikoko hiru udalerritako eta mankomunitatetako ordezkari, Behatokiko osoko bilkuran parte har dezaten.

EUDEL–Euskal Udalerrien Elkarteak ere sinatu zuen, beste erakunde batzuekin batera, Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobea egiteko erakundearen arteko akordioa, eta, horrez gainera, akordio horren jarraipen Batzordeko kide ere bada.

EUDEL–Euskal Udalerrien Elkarteak osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko ia udalerrri guztiak. Hala, gainerako erakunde guztiekin harremanetan jartzeko ordezkari egoki eta eraginkorra da politika publikoak koordinatzeko eta adosteko prozesuetan.

Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarteak eta erakundeak

- Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Politiken Arloak bultzatutako Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako Foroaren ordekarari gisa:

SIM ROMI-EMAKUME IJITOEN ELKARTEA.

Rosa Jiménez Jiménez andrea

Ordezkoa: LANDA XXI-Landa-eremuko Emakume eta Familien Elkarte. Amaia Aberasturi
Larrucea andrea

Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako Foroa foro aholku-emailea da, eta, han, kontuan hartzen dira Bizkaiko Lurralde Historikoan jarduten duten emakumeen kolektiboek egindako proposamenak. Era berean, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Bizkaiko III. Foru Planaren (2009-2011) jarraipena egiteko mekanismo dinamikoak ezartzeko aukera ematen du.

- Genero-indarkeriaren aurkako arlotik:

ARGITAN-Emakumeentzako Aholku Etxea

Karmele Ozaita Andrés andrea, presidentea

Ordezkoa: Blanca Pangua Bedia andrea, batzordekidea

“ARGITAN” Emakumeentzako Aholku Etxea 1996ko martxoan jarri zen martxan. Desberdintasuneko, diskriminazioko eta sexu-indarkeriako egoerak pairatzen dituzten emakumeen beharrei erantzutea du helburu, kontuan hartuta, betiere, egoera horiek hainbat modutara ager daitezkeela.

Batez ere lege- eta lan-aholkuak, sexu- eta psikologia-laguntza eta gizarte-arloetako aholkuak ematen ditu. Horiez gainera, hainbat gairi buruzko jarduerak ere egiten ditu, betiere, genero-ikuspegia oinarri hartuta (tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak, eztabaidak), eta salaketa-, aldarrikapen- eta kontzientziazio-lana ere egiten du.

- Genero-indarkeriaren aurkako arlotik:

AUZOLAN Laguntza Psikosozialeko Modulua


Marta Dolado Galíndez andrea, aholkulari juridikoa

Ordezkoa: Ana Fernández de Garayalde Ulacia, soziologoa eta zentroko koordinatzailea

Auzolan Laguntza Psikosozialeko Modulua irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta lanean dihardu 1982az geroztik, osasun-maila hobetzeko, alderdi bio-psiko-soziala landuz.

Honako arlo hauetan ematen du zerbitzu: laguntza psikologikoa, lege-aholkularitza, helduen, haurren eta gazteen osasun mentala, ugaltze-osasuna, alkoholismoa eta toxikomaniak

BIZKAIKO GENERO-INDARKERIAREN BEHATOKIAREN ORGANIGRAMA 2013



Araudia

Honako lege-testu hauetan geratzen dira berretsita Behatokia sortzeari eta haren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko xedapenak Azken dekretuak, 2013an onetsiak, Behatokiaren eremuak hedatzen ditu; izan ere, Eusko Jaurlaritzako osasun- eta hezkuntza-eremuetako eskumeneko arloek ere parte hartzen dute orain, eta emakumeen aurkako indarkeriaren detekzioan eta arretan inplikaturako sektore guztiak elkarlanean dihardute.

- 53/2003 FORU DEKRETUA, martxoaren 18koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortzen duena (BAOren 63. zk., 2003ko apirilaren 1ekoa).
- 188/2004 FORU DEKRETUA, azaroaren 9koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu zuen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldatzen duena (BAOren 226. zk., 2004ko azaroaren 23koa).
- 5016/2005 FORU AGINDUA, apirilaren 18koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia onartzen duena (BAOren 82. zk., 2005eko maiatzaren 3koa).
- 5/2010 FORU DEKRETUA, otsailaren 2koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu zuen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldatzen duena (BAOren 29. zk., 2010eko otsailaren 12koa).
- 75/2013 FORU DEKRETUA, maiatzaren 21ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu zuen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldatzen duena. (BAOren, 100. zk., 2013ko maiatzaren 27koa).

2013-2017ko Lan Plana

BGIBren 2013-2017ko Lan Plana egitea

Behatokia abian jarri zenetik, BGIBren jardueraren plangintza lau urteko planen bidez egiten da, eta urtero zehazten dira. Lau urteko plan horiek ildo nagusiak eta epealdirako oinarritzko gidalerroak finkatzen dituzte, eta helburuak eta jarduerak ezartzen dituzte, denbora-eremu osoa kontuan hartuta.

2004ko urriaren 22an Behatokiko Osoko Bilkurak organoaren lehen lan-plana onetsi zuen 2004-2008 epealdirako. Bigarren lan-plana, berriz, 2009ko apirilaren 24ko osoko bilkuran onetsi zuen 2009-2012 epealdirako.

BGIBk hirugarren lan-plana prestatu zuen, eta 2013ko irailaren 27ko osoko bilkuran onetsi zuen.

2013-2017ko planak zeharkako lau ardatz ditu: koordinazioa eta bat etortzea, bai organo barruan, bai kanpoan; partaidetza-prozesuak; genero-ikuspegia; eta zabalkundea eta Europara hedatzea.

Hirugarren plan honek honako helburu hauek ditu:

- a.** Aurreko epealdiko ebaluazioaren emaitzen azterketa.
- b.** Osasunaren eta Hezkuntzaren partaidetza areagotzea, eta batzorde-lana eta Udal Harremanetarako Sarea.
- c.** Europako Eremuan jarduteko aukerak bilatzea, eta BGIB eta organoak egindako lana hedatzea.
- d.** Emakumeen aurkako indarkeria-egoeren errealitatea eta bilakaera ezagutzeko prozesuan sakontzea, informazioa biltzeko sistemak etengabe hobetzearen bitartez eta lortutako datuen analisiaren bidez.
- e.** BGIBn parte hartzen duten sare antolatuen eta pertsonen jakintza adituak baliatzea.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

2013-2017ko Lan Plana

Lan Planaren 2013ko ekitaldiko garapenaren laburpena

Ondorengo lerroetan laburbiltzen da 2013ko ekitaldian egindako lanak; batzuk lan-plan berria garatzea helburu dutenak, eta beste batzuk 2012an hasitako jarduerak burutze aldera eginak, epealdiko azken urteko berariazko eginkizunak aintzat hartuta.

Administrazio- eta funtzionamendu-zereginak

2013an Behatokiko Osoko Bilkurak bilera egin zuen irailaren 27an. Biltzar horretan Behatokiaren 2013-2017ko Lan Plana aurkeztu zen, 2013an egina, bai eta “II. txostena: Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak”. Halaber, “Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren ebaluazioa, 2009-2012ko epealdia” azterlanaren baliozkotzea ere. Azken bi dokumentu horiek dira, hain zuzen, lau urteko epealdi bakoitzaren amaieran BGIBk egin beharreko jarduerari dagozkienak, kasu honetan 2009-2012 epealdiari buruzkoak.

Biltzar horretan elkartutako Osoko Bilkurak aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzari esleitutako mahaikideen berritze orokorra. Horrez gainera, erakunde autonomikoan osasun- eta hezkuntza-alorretan eskumenak dituzten eremuak ere parte hartzen hasi direla jakinarazi da. Neurri hori jasota zegoen Behatokiaren 2009-2012ko Lan Planean ezarritako aurreikuspenean, eta egungo 2013-2017ko Planean ere hala ageri da.

Halaber, Lantaldeak zortzi bilera egin zituen urtean zehar, “Gomendioen II. txostena” eta Taldearen etengabeko jarduerak, lurraldeko datuak biltzearekin eta dagozkion txostenak egitearekin lotuak, prestatzeko lanetarako.

Hedapenarekin eta harremanekin lotutako zereginak: BGIBren harremanak eta jardueren eta produktuen hedapena kudeatzea

Behatokiari dagokio, bereziki erakundeetako profesionalek helarazitako informazio- eta dokumentazio-eskaerak kudeatzea.

BGIBren webgunea erakundearen jarduera hedatzeko eta ikusgai jartzeko bidea den aldetik, erabiltzaileen artean —agintaritza publikoek, hirugarren sektoreak eta herritarrek, oro har, osatutako kolektiboa— erabakien, tresnen, jardunbide egokien eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko bidean egindako aurrerabideei buruzko dokumentuen berri emateko erabiltzen da, horiek erakundean bertan edo kanpoan sortuak izanda ere.

Webgunearen aldian behingo eguneratzeen ildoari jarraituz, 2013an zehar Behatokiaren jarduerari buruzko informazio egokia sartu da, dokumentu-funtsak zabaldu dira, argitalpen berriak erregistratzearen ondorioz, eta beste erakunde batzuek genero-indarkeriaren alorrean egindako txosten, azterlan eta ikerketen berri eman da.

Ekitaldian BGIBk sortutako materialei dagokienez, aipatzekoa da Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen kontrako indarkeriaren arloan dauden baliabideen atlasa berritu eta zabaldu dela, eta “II. txostena: Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” argitaratu dela.

Bestalde, BGIBren buletina kontuan hartuta, 28. zenbakia martxoan argitaratu zen, 29. zenbakia ekainean, 30. zenbakia urrian eta 31. zenbakia abenduan. Buletinak funtsezko aldaketak izan ditu, bai diseinuari buruzkoak, bai edukiari dagozkionak. Azken arlo horretan aipatzekoa da hainbat esparrutako adituen parte-hartze zuzenaren ildoari heldu zaiola.

Datu-bilketa: urtekoa eta seihiilekoa

Ikusita zerbitzu publikoek gizarte-, polizia- eta epai-eremuetan zenbat emakume artatu zituzten 2012n indarkeria-arazoekin loturik, eta eskakizun eta arazo horiei erantzuteko prestatutako baliabideak zenbateraino dauden eskuragarri eta zer ezaugarri dituzten, Behatokiak, 2013ko hasieran, urteko datuak biltzeari ekin zion.

Proiektuan parte hartu dute Bizkaiko udalerri eta mankomunitateek, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak (Emakumea eta Familiako Esku-hartzea Zerbitzua), Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeak, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak (Estatistika Arloa), Herri Administrazio eta Segurtasun Sailak (BLZ) eta Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuak. Informazio-iturri horiez gainera, aintzat hartu behar dira esparru judizialarekin lotutako beste dokumentazio-iturri batzuk.

Halaber, 2013an ekin zion BGIBk urtearen lehen seihiilekoari buruzko datuak biltzeari. Arreta emateko beren baliabideak dituzten 22 udalerrik eta 7 mankomunitatek jasotako datuak bildu dira, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak (Emakumea eta Familiako Esku-hartzea Zerbitzua) eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak (Estatistika Arloa) emandakoak ere. Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetako barruti judizialek emandako informazioa biltze aldera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak emandako estatistikak kontsultatzen dira.

2013an, erakundeei haien erantzunak bizkorrago biltzeko helarazitako urteko eta seihiileko galde-sortek, bakoitzak bere berezitasunak dituela, aldaketak izan dituzte, besteak beste, honako alderdi hauetan: sexu-indarkeriari buruzko galdera gehiago, arreta emandako emakumeen eta haien seme-alaben adina, emakumeen eta gizonen berdintasunerako ordenantzak eta antzeko baliabideak eskura izatea, eta genero-ikuspegia aintzat hartzen duten hiri-diagnostikoak egin izana.

Seihiileko datu-bilketa itxi da aurten erakunde parte-hartzaileei berariazko txostenak bidalita, azaroaren 25a, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, baino lehenago, 2012an egin zen bezala. Horretarako, erakundeen laguntza izan dugu, datuak denbora nahikoaz bidali baitituzte, Behatokiaren konpromiso hori betetzea bideratzeko.

Urteko eta seihiileko txostenak: BGIBren produktuak eta txostenak egitea

Ekainean, Behatokiak 2013ko datuak erantsita eguneratu zuen txosten hau: “Etxean indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktime diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Harrera, aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku hartzeko programa espezializatuak, familia-elkarguneak eta laguntza sozialeko agenteen sarea: Bizkaiko Lurralde Historikoa”, webgunean eskura dagoena. Txosten horretan sistematizatzen da emakumeen aurkako indarkeriaren biktimeen eskura toki-administrazioek jartzen dituzten baliabide- eta zerbitzu-sareei buruzko informazioa.

Beste dokumentu bat ere argitaratu da: “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizarte-babesaren, poliziaren eta justiziaren arloak, 2012”. Dokumentu horren egitura analisi deskribatzailea da, eta informazio-iturri gisa erabiltzen ditu indarkeriaren biktime izandako emakumeei esparru sozialean, polizialean eta judizialean emandako arretari buruzko zenbaketak; atal horren ondoren, datuak antolatuta ageri dira, jarduteko eremuen arabera.

“Udalerrietako Informazio Orriak” sei hilez behingo txostenak dira. Txosten horietan jasota daude beren baliabideak dituzten udalerri eta mankomunitateek eta udalez gaindiko erakundeek (Foru Aldundia eta Autonomia Erkidegoa), emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitea helburu duten zerbitzuen bidez, urtearen lehenengo sei hilabeteetan emakume biktimei emandako arretaren bolumenari buruzko informazio garrantzitsu eta bana-banakoak.

2013an, 29 txosten egin dira; etxeko tratu txarren eta/edo sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko beren baliabideak dituzten 22 udalerriri eta 6 mankomunitateri zegozkien.

Behatokiaren etengabeko eguneratze-lanen haritik, honako tresna hauek berrikusi eta zenbait berrikuntza egin dira: “Genero-indarkeriaren arloko baliabideen mapa”, “Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen kontrako indarkeriaren arloan dauden baliabideen atlasa” eta “On line dokumentu-kudeatzailea”. Tresna horiek emakumeen kontrako indarkeria-egoeretan arreta emateko lurralde-baliabideetatik (esparru sozialekoak, polizialekoak, judizialekoak, osasun-esparrukoak eta elkarte-esparrukoak dira horiek) datorren informazioa hedatzen dute.

Laguntza-sarearen berezitasunei eta dokumentu-funtsari buruzko informazioa biltzen dute, elektronikoki ere kontsulta daitekeena: berdintasun-plan eta -programei buruzkoa, indarkeriaren kontrako plan eta programei buruzkoa, eta tokian tokiko koordinazio-protokoloei buruzkoa, alegia, eta 2013an nazioarteko eta Europako dokumentazioa ere erantsi zaie.

Azpimarratu behar da 2013an, edizio bakoitzean egin beharreko aldaketez gainera, prestazio handiagoak ematen dituztela tresna horik, bai atlasaren kasuan, bai kudeatzailearen kasuan.

Gomendioak ematea eta hobetzeko proposamenak egitea

Behatokiak 2013ko azaroan argitaratu du Gomendioen II. txostena, 2012an hasitako prozesua amaitu ostean. Horrenbestez, prozesu horren azken emaitzak oinarri hartuta, Behatokiko Lantaldeak erakundeei eta gainerako gizarte-eragileei proposatzen die indarkeria desagerrarazteko jardunean egiten duten ekarpena honako hiru eremu nagusi hauetan fokatzea: prebentzioa, errealitatea ezagutzea eta arreta ematea.

Dokumentua ohiko formatuan eta formatu elektronikoan argitaratu da, eta honako aurkibide hau du:

- Aurkezpena
BGIBko Adierazleen Lantaldea
Metodologia
- Prebentzioaren gaineko gomendioak
Sarrera
Genero-ikusegiaren zeharkakotasuna. Berdintasun-politikak
Emakumeen jabekuntza
Prebentzioaren gaineko beste gomendio batzuk
- Errealitatearen ezagutzaren gaineko gomendioak
Sarrera
Datuen erregistroa eta jarraipena
Ikerketa eta hedapena
- Arretaren gaineko gomendioak
Sarrera
Arreta-zerbitzuak
Profesionalen prestakuntza
Erakundeen koordinazioa

BGIBren 2009-2012ko ebaluazioa

Halaber, 2013ko azaroan argitaratu da Behatokiak, genero-indarkeriari buruzko informazioaren eta ezagutzaren Bizkaiko erreferente gisa finkatzeko etapako (2009-2012) jardueraren ebaluazioa.

Dokumentua formatu elektronikoan argitaratu da, eta aurkibide hau du:

- Sarrera
- Ebaluazioaren xedea
- Azterketa-teknikak
- Helburuen eta prozesuen analisia
- 1. lerroa: Errealitatea ezagutzeko eta ebaluatzeko prozesua
- 2. lerroa: Emaizak jakinarazteko eta zabaltzeko prozesua
- 3. lerroa: Gomendioak adierazteko prozesua hobetzea
- Edukien eta emaitzen analisia, BGIBko parte-hartzaileei egindako galdetegi eta kontsultetan oinarritua
- Osoko Bilkura eta adierazleei buruzko lantaldea
- Udal Harremanetarako Sarea
- Webgunearen bisitariak
- Indarguneak eta hobekuntza-arloak
- 2004-2008 epealdiko ebaluazioan hautemandako hobekuntza-arloen jarraipena



Osoko bilkurak

Behatokiko Osoko Bilkurak urtean bitan egiten ditu ohiko osoko bilkurak; eta ez-ohikoa lehendakaritzak deitzen duen guztietan, lehendakaritzak berak eskatuta, edo gutxienez kideen herenak eskatuta.

2013an irailaren 27ko bilkura soilik egin zen, Eusko Jaurlaritzari dagozkion mahaikide guztiak esleitzeko prozesuan gertatutako atzeratzearen ondorioz.

Bilkuraren hasieran ongietorria eman zitzaien foru-administrazioaren eta administrazio autonomikoaren ordezkari diren kide berriei: Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa, Mercedes Muñiz andrea, Osoko Bilkurako lehendakariordea, eta Izaskun Artetxe andrea, Ekonomia Sustapeneko Saileko mahaikidea.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Segurtasun Saileko eta Herri Administrazio eta Justizia Saileko ordezkariak aldatu ziren, eta Ana María Reka andrea eta Manuel Valín jauna ziren ordezkari berriak, hurrenez hurren. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari dagokionez, organoan parte hartu zuen berriro, Lide Amilibia andrea ordezkari izanik. Eta, amaitzeko, Osasun Saila eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila Behatokian sartu ziren, lehenengo kasuan M. Jesús Gemma Mugica andrea eta bigarreanean Begoña Garamendi andrea ordezkari zirela.

URT.	OTS.	MAR.	API.	MAI.	EKA.	UZT.	ABU.	IRA.	URR.	AZA.	ABE.
								27			

Ondoren, bilera horretan landutako edukiak laburbilduko ditugu:

2013ko irailaren 27ko bilera

“Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren ebaluazioa, 2009-2012ko epealdia” aurkeztu eta baliozkotu zen.

“II. txostena: Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeek jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” aurkeztu zen, eta erakundeek ordezkariari 20 eguneko epea eman zitzaien, proposamenari alegazioak egiteko.

Adierazleei buruzko lantaldeak 2013an egindako jardueren berri eman zen.

Behatokiko 2013-2017 epealdirako Lan Plana aurkeztu eta onetsi zen.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

2013ko irailaren 27ko bilera

Adierazleei buruzko lantaldea

Adierazleei buruzko lantaldearen helburua da adierazle egokiak hautatzea eta ezartzea, 2004ko urriaren 22ko Behatokiko osoko bilkuran ezarritakoari jarraituz, haien bidez emakumeen kontrako indarkeriaren fenomenoaren oinarri homologagarri eta diakronikoki konparagarri batekin neurtu ahal izateko.

Gaur egun, adierazleei buruzko lantaldean parte hartzen dute honako erakunde eta pertsona hauek:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila
Berta Díaz Arbesú andrea, Emakumearen Ataleko burua (Lantaldeko koordinatzailea)
Ordezkoa: Maria Dolores Menchaca Araluce andrea, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuko burua
- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila
Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia
Cristina Sarduy Gainza andrea, Genero Politiketako idazkari teknikoa
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Saila
Izaskun Artetxe García andrea, Enpresa Sustapeneko Zerbitzuaren burua
Ordezkoa: Juan José Duque Murua jauna, Informazio Egituren Ataleko goi-teknikaria
- Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundea
Raquel Raposo Acevedo andrea, Programak eta Prestakuntza Saileko Arduraduna
Ordezkoa: Leyre Sologuren Etxenagusia andrea, Programak eta Prestakuntza Saileko Arduraduna
- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila
Azterketa Arloa
Marimar Rueda Fernández andrea, Estatistika Arloko burua
- Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saila
Roberto Moreno Álvarez jauna, Helduen Justizia Zerbitzuko burua
Ordezkoa: Carmelo Santoyo Alzuri jauna, EAEko emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio-zentroko arduraduna

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriak eta mankomunitateak (EUEDEL)

- Ermuko Udala (titularra)
Begoña Fernández Alcalde, Ermuko Udaleko berdintasun-teknikaria
- Gernika-Lumoko Udala (ordezkoa)
Ixone Badiola Lekue andrea, Gernika-Lumoko Udaleko Emakume Zerbitzuko teknikari arduraduna

Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarteak eta erakundeak

- ARGITAN – Emakumeentzako Aholku Etxea
Karmele Ozaita Andrés andrea, presidentea
Ordezkoa: Aintzane Riancho Blanco andrea, abokatua
- AUZOLAN Laguntza Psikosozialeko Modulua
Marta Dolado Galíndez andrea, abokatua
Ordezkoa: Miren Edurne Fernández Arias andrea, abokatua

Adierazleei buruzko lantaldea bildu zen 2013an egindako zortzi deialdietan; hain zuzen ere, urtarrilaren 17an, otsailaren 7an, otsailaren 28an, martxoaren 19an, apirilaren 12an, apirilaren 29an, ekainaren 10ean eta urriaren 9an. Bilerak Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren bulegoetan egin dira, Behatokiaren egoitzan, alegia.

URT.	OTS.	MAR.	API.	MAI.	EKA.	UZT.	ABU.	IRA.	URR.	AZA.	ABE.
17	7	28	19	12	29		10			31	

Ondoren, bilera bakoitzean landutako edukiak laburbilduko ditugu:

2013ko urtarrilaren 17ko bilera

Lantaldeko kideei BGIBren buletina ebaluatzeko galde-sorta bana banatu zitzaion bileran, eta hura bete eta lantaldearen koordinatzaileari bidaltzeko eskatu zitzaion.

Lantaldeko kideek adostu zuten gomendioak egiteko prozesua ikuspegi globalago bat aintzat hartuta egin behar dela, eta horrenbestez, alde batera utzi behar direla proposamenak garatzeko jarraibide zehatzak.

Erabaki zuten taldekide bakoitzak idatziko zuela emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren alorreko gomendioen proposamen bat, eta lantaldearen hurrengo bileran aurkeztuko zituztela.

2013ko otsailaren 7ko bilera

BGIBren buletinaren egungo tamainari eustea erabaki zuten, jasotzen duen informazioaren bolumenari dagokionez, eta ezarrita dauden atalei epigrafe eta gai berriak eranstea.

Halaber, erabaki zuten adierazleei buruzko lantaldeko kide bakoitzari, buletina egiteko fasearen aurretik, dagokion edizioaren sumarioan sar daitezkeen alderdiei buruz kontsulta egitea, edukiei buruzko proposamenak egiteari begira.

Planteatu zen iradokitzen ziren aldaketak txertatzea prebentzioaren alorreko gomendioen proposamenei buruzko topaketan.

Erabaki zen Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak eta BGIBren Idazkaritza Teknikoak gomendioen proposamen bat egitea datu-bilketari buruz, oinarrizko dokumentu gisa, lantaldearen hurrengo saioan jarduera-ildo hori jorratzeko.

2013ko otsailaren 28ko bilera

BGIBk Lurraldeko datuak biltzeko erabiltzen duen fitxa aldatzea erabaki zen, lehendik zeuden galderen ordena aldatzeko eta arreta jasotako emakumeen baliabideei eta ezaugarriei buruzko galdera berriak sartzeko.

Prebentzioaren alorreko gomendioei buruzko dokumentua, Eudelek egindako alegazioak aintzat hartzen dituen, baliozkotzea erabaki zen.

Errealitatea ezagutzeari buruzko gomendioen proposamenari buruz topaketan egindako gogoetak ere sartzeko adostu zen, betiere lantaldeak ebaluatu ostean.

Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuaren eta BGIBren Idazkaritza Teknikoaren eskuetan utzi zen arreta-zerbitzuei buruzko gomendioen proposamen bat prestatzeko eginkizuna, oinarrizko dokumentu gisa, lantaldearen hurrengo saioan jarduera-ildo hori jorratzeko.

2013ko martxoaren 19ko bilera

Bilera horretan parte hartu zuen Estibalitz Anitua andreak, Uribe Kosta Zerbitzu Mankomunitateko berdintasun-teknikariak, Udal Harremanetarako Sarea sendotzea helburu duen BGIBren hurbiltze-guneetara zabaltzeko joeraren esparruan.

Errealitatea ezagutzeari buruzko gomendioen proposamenari buruzko saioan sortutako aldaketak txertatzea erabaki zen, bai eta arreta-zerbitzuei buruzko proposamena ere, betiere lantaldeak biak berrikusi ondoren.

Planteatu zen Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak eta Idazkaritza Teknikoak gomendioen proposamen bana idaztea profesionalen prestakuntzari eta koordinazioari buruz, oinarritzko dokumentu gisa, lantaldearen hurrengo saioan bi jarduera-ildo horiek jorratzeko.

2013ko apirilaren 12ko bilera

Errealitatearen ezagutzaren alorreko gomendioen proposamena onetsi zen.

Arreta-zerbitzuen alorreko gomendioen proposamena berretsi zen.

Prestakuntzari eta koordinazioari buruzko gomendioen proposamenari buruzko saioan sortutako aldaketak egitea erabaki zen.

Bi gomendio berriak prebentzioaren alorreko gomendioen proposamenean sartzea xedatu zen.

2013ko apirilaren 29ko bilera

Idazkaritza Teknikoari eskatu zitzaion arreta-zerbitzuen, prestakuntzaren eta koordinazioaren alorretako gomendioen dokumentuak eguneratzeko, bileran erabakitako atalei dagokienez. Halaber, eskatu zitzaion koordinazioari buruzko kapitulua lantaldeari bidaltzeko, alegazioak egin zitzaion, gero Idazkaritza Teknikoak egin beharreko azken bertsioan alegazio horiek aintzat hartzeko.

Behin-behinean baliozkotu zen Gomendioen II. txostena, koordinazioaren atalari buruzko erabakirik hartu gabe, alegazioak entregatu zain.

2013ko ekainaren 10eko bilera

Koordinazioari buruzko gomendioen proposamenari egindako alegazioak onetsi ziren.

Idazkaritza Teknikoari agindu zitzaion gomendioen proposamenean koordinazioari buruzko atala eguneratzeko eta "II. txostena: Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeek jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak" dokumentuari buruzko azken proposamena idazteko. Bertsio hori lantaldeari bidaliko zaio, balioespena egin dezan, osoko bilkurara eraman aurretik.

"Etxean indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. 2013". Txostena berretsi zen, topaketan onetsitako aldaketak sartu zain (dokumentua laguntza sozialeko agenteen sarearen programara hedatzea).

2013ko urriaren 31ko bilera

Bilerara bertaratu ziren Mila Amurrio andrea, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) Soziologia Saileko irakaslea eta ikertzailea, eta Pilar González andrea, Barakaldoko Udaleko berdintasun-teknikaria, Udal Harremanetarako Sarea sendotzea helburu duen BGIBren hurbiltze-guneetara zabaltzeko joeraren esparruan.

Txosten hau aurkeztu eta onetsi zen: “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizarte-babesaren, poliziaren eta justiziaren arloak, 2012”, eta hamar eguneko epea jarri zen alegazioak egiteko.

Adostu zen Idazkaritza Teknikoak inkesta bat egin zezala, Udalerrietako Informazio Orria ebaluatzeko. Inkesta horren helburu izango dira seihileko datu-bilketan parte hartzen duten erakundeetako informazioa helarazten duten teknikariak zein politikari arduradunak.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

2013ko urtarrilaren 17ko bilera

2013ko otsailaren 7ko bilera

2013ko otsailaren 28ko bilera

2013ko martxoaren 19ko bilera

2013ko apirilaren 12ko bilera

2013ko apirilaren 29ko bilera

2013ko ekainaren 10eko bilera

2013ko urriaren 31ko bilera

Kanpo harremanak

Behatokiaren eginkizuna da halaber, emakumeen aurkako indarkeria arintzea eta aztertzea helburu duten inguruneen informazio-eskaerei erantzutea. Alde batetik, arlo horrekin lotura duten erakunde publiko eta pribatuaren eskaerak dira, eta bestetik, herritarrenak. Enteak telefono-bidezko elkarrizketak eta posta elektronikoa ovgb.bgib@bizkaia.net) helbide elektroniko korporatiboaren bidez) baliatzen ditu, helarazten dizkioten kontsultak ebatzeko.

2013an, Administrazioako sail batzuek (batez ere berdintasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloak), hirugarren sektoreko erakundeek, unibertsitate-erkidegoak, komunitate zientifikoak, komunikabideek, nazioarteko erakundeek, behatokiek, pertsona interesatuek, eta arreta-baliabideen erabiltzaile batzuek ere BGIBrekin harremanetan jarri dira, informazioa eskatzeko.

Eskaerak honako gai hauei buruzkoak izan ohi dira: emakume biktimei arreta emateko baliabide publikoak (eskuratzeko baldintzak eta ezaugarriak), hedatzea merezi duten ekimenak, estatistikak (estatistika horien analisisa eta interpretazioa barnean hartuta), askotariko edo berariazko informazioa, eta genero-indarkeriari buruzko argitalpenak eta dokumentazioa (gidak, eskuliburuak, txostenak, ikerketak...). Halaber, BGIBren buletinaren banaketa-zerrendan sartzeko eskabideak ere jasotzen ditugu.

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak antolatutako “Intersekzioak” genero-indarkeriari buruzko nazioarteko kongresuan, BGIBko idazkari eta adierazleei buruzko lantaldearen koordinatzaile Berta Díaz Arbesú andreak honako ponentzia hau aurkeztu zuen uztailaren 10ean: Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia (BGIB): jardunbide egokien esperientzia.

Díaz Arbesú emandako azalpenean, BGIBren jatorriari buruzko argibide batzuk eman zituen hasieran, gero informazioa hedatzeko: helburuak, funtzioak, organoa osatzen duten plataformetan (Osoko Bilkura eta adierazleei buruzko lantaldea) biltzen diren erakunde parte-hartzaileak, metodologia eta indarrean dagoen lan-plana, argitalpenak (“Zifrak” txostenak, baliabideen katalogoa, jardunbideen eskuliburua, ebaluazio-txostenak, gomendioak eta hobetzeko proposamenak, BGIBren buletina) eta sortzen dituen produktuak (baliabideen atlasa, baliabideen mapa, dokumentu-kudeatzailea ...).

Kongresuan 160 lan baino gehiago aurkeztu zituzten bost kontinenteetako 30 herrialdeetatik etorritako 186 parte-hartzaileek.

Webgunea

2004an, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren web-orrian gunee bat egokitu zen, BGIBren webgunea kokatzeko. Honako xede nagusi hauek ditu espazio horrek: erakundearen jarduerak hedatzea; emakumeen aurkako indarkeria ikertzeari eta desagerrarazteari buruzko ezagutzak partekatzea; lantresnak diseinatzea, eguneratzea eta erakunde eta profesionalen helaraztea; eta harremanak eta ideia- eta dokumentazio-trukea sustatzea Behatokiaren eta haren solaskide diren erakundeen artean.

Posta elektronikoko honako luzapen hauen bidez sar gaitzke han:

http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html

http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_index.html

2013an ere webgunea sendotzeko lanetan jarraitu dugu, erakundeari dagozkion funtzioak komunikazioaren eta zabalkundearen alorrekoak diren aldetik. Horrenbestez, adierazi behar dugu etengabe eguneratzen dugula webgune horretan dagoen informazioa, hobekuntzak egiten ditugula haren egiturari eta edukietan, eta erabiltzaileentzat nabigazioa errazagoa izan dadin ahalegintzen garela, ezagutza eskuratzeko prozesuari dinamismo handiagoa ematea helburu hartuta.

Webguneak 16 atal ditu (haietatik zortzik testuak jasotzen dituzte):

- **Definizioa:** organoaren aurkezpena, aurrekariak, helburuak, funtzioak eta dagozkion legeak.
- **Kideak:** Behatokia osatzen duten pertsonen zerrenda, bakoitzak zer kargu duen eta zer erakunde ordezkatzen duen adierazita.
- **Bilerak:** egutegia eta osoko bilkuretan berretsitako dokumentuak.
- **Dokumentuak:** guztira, 92 dokumentu bilduta daude funts horretan, eta guztiak on line kontsulta daitezke. Honela sailkatuta daude: protokoloak, legedia, nazioarteko baliabideak; azterketak eta gidak; Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak argitaratutako makroinkestak (“Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak, 2006” eta “Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak. 2009ko emaitzak eta 2005-2009 konparazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan”), Behatokiak berak sortutako dokumentazioarekin batera:
 - BGIBren Lan Plana (2013-2017)
 - BGIBren Lan Plana (2009-2012)
 - BGIBren Lan Plana (2004-2008)
 - BGIBren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia
 - Jarduera-memoria (2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011 eta 2012)
 - “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizarte-babesaren, poliziaren eta justiziaren arloak” dokumentua (2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011 eta 2012)
 - “Etxean indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeen laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Bizkaiko Lurralde Historikoa. 2013” txostena
 - *Manual de prácticas, iniciativas y experiencias contra la violencia de género, 2006 (Genero-indarkeriaren aurkako jardunen, ekimenen eta esperientzien eskuliburua, 2006) argitalpena*

- *Prebentzio- eta arreta-arloan genero-indarkeriaren aurkako jardunen, ekimenen eta esperientzien eskuliburua, 2010 argitalpena*
 - “Cifras de violencia contra las mujeres en la Unión Europea, 2006” (Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko zifrak Europar Batasunean, 2006) dokumentua
 - “Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren ebaluazioa, 2009-2012 epealdia” azterlana
 - “II. txostena: Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak, 2013”
 - Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak emandako gomendioen jarraipen-txostena eta balantzea (2004-2008ko epealdiaren amaiera). 2012
 - “Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak, 2009” (sintesia / testu osoa)
- **Baliabideen mapa:** Bizkaian genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta ematen dieten hainbat baliabidek eta erakundek (instituzioak eta hirugarren sektorekoak) osatutako datu-basea. Mapa horren bidez, berdintasun-planak, indarkeriaren kontrako programak eta ekintza koordinatuko protokoloak ikus ditzakegu, toki-erakundeek BGIBren esku jartzen baitituzte hark publikoki zabal ditzan. Mapak badu baliabideen bilatzailea. Aplikazio horri esker, zerbitzuen zerrendak lor daitezke (gizarte-arloko baliabideak, justizia-arloko baliabideak, polizia-arlokoak, osasun-baliabideak, elkarteak eta indarkeriaren aurkako beste zerbitzu espezializatu batzuk, eta berdintasunerako tresnak). Bilaketa egiteko, hiru aukera daude:
- Udalerrri guztietako baliabide guztiak
 - Aukeratutako udalerriko baliabide guztiak
 - Udalerrri guztietan, aukeratutako arloen baliabide guztiak

2013an, baliabideen maparen egitura eta edukien luzera zabaldu dira, eta beste bi arlo sartu dira dokumentu-tipologian:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-ordenantzak
- Genero-ikuspegia aintzat hartzen duten hiri-diagnostikoak

BERDINTASUNERAKO TRESNAK atalean jasota daude Bizkaiko udalerrri eta mankomunitateei dagozkien gai horiei buruzko testuak.

Atal berean (BERDINTASUNERAKO TRESNAK) Bizkaiko toki-erakundeek jardueratik sortutako dokumentu gehiago sartu dira 2013an, honako kategoria hauetan: diagnostikoak eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak, indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta hobea emateko tokiko protokoloak, udal-kontseiluen berdintasunerako araudiak...

- **Adierazleak:** bi atal hauek ditu:

- **Lantaldea:** adierazleak lantzeko taldeko kideen zerrenda, zer kargu duten eta zer erakunde ordezkatzan duten, bileren egutegia eta bilkuretan sortutako dokumentazioa jasotzen ditu.
- **Zifrak:** “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizarte-babesaren, poliziaren eta justiziaren arloak” dokumentuaren 2004ko, 2005eko, 2006ko, 2007ko, 2008ko, 2009ko, 2010eko, 2011ko eta 2012ko edizioak jasotzen ditu.

- **Baliabideen atlas:** bilduma kartografiko horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta juridikoa, arreta psikologikoa eta harrerako arreta emateko zer baliabide dituzten azaltzen da; horiez gain, berdintasun-mekanismoen inguruko koordinazioaren eta indarrean dauden politiken berri ere ematen da (planak, arloak, sareak eta eragileak). 2013an bi atal sortu dira, poliziaren eta justiziaren arlotik jasotako informazioa sartzeko.

Dokumentu-kudeatzailea: berdintasun-planak, udal-programak, tokiko protokoloak, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan, beste autonomia-erkidego batzuetan, estatuan, Europan eta nazioartean aplikatzekoak diren legediak biltzen dira.

2013an hainbat dokumentu txertatu dira kudeatzailean; batez ere, emakumeen eta gizonen berdintasunerako tokiko planen alorrean, bai eta etxeko-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeei arreta hobea emateko tokiko protokoloen alorrean ere. Halaber, zabaldu da emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako lege autonomikoen, tokiko araudien eta nazioarteko eta Europako legeen bilduma.

Loturak: gune horretan, Behatokian parte hartzen duten erakundeen webguneen estekak ditugu, bai eta beste erakunde batzuenak, antzeko behatokiak eta erakunde, programa eta proiektuak ere.

Parte hartu BGIBren ebaluazioan: Behatokiaren eta haren webgunearen funtzionamenduari buruzko on line inkesta.

Buletina: aldizkari elektronikoa; webgunean jasotzen dira hiruhileko edizioak. Azkeneko edizioa (31. zk.) *in situ* ikus daiteke, edo historiara sartu, bertan biltzen baitira 2005az geroztik argitaratutako guztiak.

Hizkuntza: euskarazko bertsioetik gaztelaniazkoa igarotzeko aukera ematen du, eta alderantziz.

Harremanetan jartzeko: erakundearekin harremanetan jartzeko datuak (kokagunea, helbide elektronikoa, telefonoa eta faxa).

Postontzia: Behatokiaren posta elektronikoaren helbidea, ovgb.bgib@bizkaia.net.

Erabilerraztasuna: webgunea errazago erabiltzeko informazioa ematen du. Behatokiak on line dagoen informazioa eskuratzeko eta kudeatzeko aukera-berdintasuna bermatzen die aniztasun funtzionala duten pertsonen edo informazioa eskuratzeko oztipo teknologikoak dituztenen. Horretarako, webguneko atal guztiak frogatu dira WAIK (Web Accessibility Initiative) emandako gomendioen arabera.

Web-mapa.

Webgunea kudeatzeko, elementu berri bat sartu da 2013an: berriak posta elektronikoan helarazteko eredu bat, alegia. Txantiloia horren diseinua da BGIBren buletinaren zenbaki berri bat argitaratu dela jakinarazteko bidaltzen den abisuaren antzekoa.

berriak	novedades
BGIB	OVGB
2013 Azaroa	Noviembre 2013
DOKUMENTO BERRIAK	
- Genero indarkeriaren egoerari erantzunez buruzko zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. 2012 - II Txostena Bizkaiko Lurralde Historiko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Gaineko Erakundearen Jokabideari Buruzko Gomendioak eta Hobetzeko Proposamenak 2013ko Emakumeen Aurkako Indarkeriari Buruzko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Atlasaren bertsio berria	
NUEVOS DOCUMENTOS	
- Cifras sobre atención a situaciones de violencia de género en el Territorio Histórico de Bizkaia. 2012 - II Informe Recomendaciones y Propuestas de Mejora sobre la actuación institucional en materia de violencia contra las mujeres en el Territorio Histórico de Bizkaia - Nueva versión del Atlas de Recursos sobre Violencia contra las Mujeres en el Territorio Histórico de Bizkaia, 2013	

Gune horren erabilerari eta kontsulten erregistroari begira, 2013ko datuek adierazten dute urtean 338.000 bistaratze¹ gainditu direla Behatokiko webgunean; 2008ko datuak erreferentziazat hartuta, % 161eko gorakada egin da. Azpimarratzekoa da urteko azken hiruhilekoan (azaroaren 25eko emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren inguruko ekitaldiekin batera) egin direla bistaratze gehienak; izan ere, 40.000 bistaratze egin dira hilean, gutxi gorabehera.

Datuak webguneko atalen arabera aztertuz gero, ikusten dugu dokumentuen atalak bistaratze gehiago izan dituela, 130.000tik gora 2013an, aurreko urtean baino %124 gehiago, eta aztertutako lehen urtean (2008) baino ia hiru aldiz gehiago. Halaber, webgunearen bidez dokumentu-funts horretan kontsulta gehien egindako hilabeteak urria, azaroa eta Abendua izan dira.

¹Bistaratzek: erabiltzaileek sartu eta ikusi dituzten orrialdeen kopurua.

Udal Harremanetarako Sarea (UHS)

Toki-erakundeen (Bizkaiko 112 udalerri eta 9 mankomunitate) eta Behatokiaren arteko harremanak elkarrizketa, jarrera eta datuak trukatzeko printzipio gidaria ditu oinarri, eta lurraldean emakumeen kontrako indarkeriaren fenomenoak zer egoeratan dagoen sakonki aztertzeak aukera ematen du. Helburua da toki-erakunde bakoitzean erreferentziazko kontaktuak eta loturak identifikatzea, ezartzea, mantentzea eta eguneratzea, eragile horiek aldian-aldian beren baliabideen eta emandako arretaren datuen inguruan informazio eguneratua eman diezaioten Behatokiari, gerora horiek aztertzeak.

Datu horien azterketa indarkeriaren biktime diren emakumei tokiko zerbitzu publikoen bidez emandako arretari buruzko estatistika berriak egiteko lagungarria izateaz gainera, baliagarria da lurraldeak dituen baliabideen mapa aldian behin eguneratzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen kontrako indarkeriaren aurka dauden baliabideen atlasa egiteko, eta, azken finean, informazio hori bildu eta Behatokiaren webgunearen bidez hedatzen diren argitalpenetan emateko.

Berariaz, seihileko bilketa amaitu ostean, emakume biktimei arreta emateko bere baliabideak dituen erreferentziazko erakunde bakoitzari bana-banako txostena bidaltzen zaio. Txosten horiei Udalerrietako Informazio Orria esaten zaie, eta dagokion udalerriari edo mankomunitateari buruzko berariazko datuak biltzen ditu, bai eta abian dauden beste zerbitzu publiko batzuei buruzko datuak ere. Bi kasuetan, emandako arretak kuantifikatuta ageri dira, erregistroen arabera.

Urtero eta sei hilean behin datuak biltzeko prozesuetan parte hartzeaz gainera, tokierakundeek kontsultak egin eta informazioa helarazten diote BGIBri, baliabideen, planen, programen, jardueren eta proiektuen funtzionamenduari buruz.

Toki-erakundeen eta Behatokiaren arteko komunikaziorako, posta elektronikoa (ovgb.bgib@bizkaia.net), posta arrunta eta telefonoa erabiltzen dira gehien. Bestalde, erakundearen webgunearen eta BGIBren buletinaren bidez kudeatzen dira dokumentuen hedapena, lan-tresnak eta, oro har, informazioa.

UHS bultzatzeko aurreko lan-planean aintzat hartutako hiru neurriek eusten zaie. Horrenbestez, lehenik eta behin, informazioa helarazten duten erakundeek BGIBren buletinean parte hartzen dute, "Sarean" atalean egiten dituzten ekarpenen bidez. Atal hori 2010ean eratu zen, parte-hartzaileen jarduera agerian jartzeko. 2013an aldizkarian iritzia eman dute Arratiako udalerrien Mankomunitateak (28. zenbakian), Sestaoko Udalak (29. zenbakian) eta Enkarterriko udalerrien Mankomunitateak (30. zenbakian). Amaitzeko, 31. zenbakian Beldur Barik! ekimenari eman zaio tarte hori. 2013.

Bigarrenik, 2010az geroztik Sareko berriemaileei dei egiten zaie, adierazleei buruzko lantaldearen saioetan parte har dezaten. 2013an topaketa horietan parte hartu dute Uribe Kosta Zerbitzu Mankomunitateko teknikariek (martxoaren 19an) eta Barakaldoko Udalak (urriaren 31n).

Halaber, UHS sendotzeko hirugarren neurria indarrean dago orain ere. Neurri hori dela-eta, BGIBko langileek Behatokiari buruzko informazio-bileretan parte har dezaten eskatzeko aukera dago, erakunde interesatuen udalerrietan bilerak egiteko.

Informazioa kudeatzeko sistema osoa

Urteko eta seihileko datu-bilketen prozesua egiten da informazioa kudeatzeko sistema osoaren bidez. Sistema hori egokia da indarkeriaren biktimei emandako arreten bolumenari buruzko datuak eta Bizkaiko udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideen ezaugarriei buruzkoak biltzeko, erregistratzeko eta ustiatzeko faseetarako.

Sistema horrek bi galdetegi ditu: galdetegi jakin bat du urteko prozesurako eta beste bat seihileko prozesurako. Horrenbestez, azken finean, toki-erakundeek emandako informazioa biltzen da baliabide horretan. Edizio bakoitzean, udalek eta mankomunitateek betetzen dituzte ekitaldiko arretari buruzko datuak, eta informazioari dagozkionak eguneratzen dira, aldaketaren bat gertatu bada.

Inprimaki horretan, aurreko ekitaldietan emandako informazioa dago, eta zerbitzariak gordetzen dituen datuekin bat ez datozenak soilik hartzen dira. *BackOffice* tresnaren bidez, fitxetan jasotako datuen zerrendak eta estatistikak atera daitezke.

Galde-sortan “Laguntza” atala aktibatzea erabakiz gero, betetzeko jarraibideak agertzen dira. Dena dela, zalantzak argitzeko, erreferentziazko erakundeen esku dago Behatokiaren Idazkaritza Teknikoak eman dezakeen laguntza, bai telefono bidez, bai posta elektronikoaren bidez.

Dauden baliabideak ezagutzea eta indarkeriaren biktimei emandako arreten bolumena jakitea helburu hartuta, urteko datuak biltzeko erabilitako oinarritzko galde-sortak honako gai hauei buruzko galderak egiten ditu sei atal hauen bitartez:

- Tokiko erakundea
- Gizarte-baliabideak eta berdintasunerako baliabideak: Oinarritzko Gizarte Zerbitzua, Emakumearen edo Berdintasunaren Arloa, Berdintasun Plana, Berdintasun Eragilea, Berdintasun Kontseilua, Emakumeen Tokiko ekintza koordinaturako protokoloa, Berdintasuna eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Plana.
- Aholkularitza juridikorako baliabideak
- Arreta psikologikorako baliabideak
- Indarkeriaren biktimei emandako babesa emateko berariazko baliabideak
- Beste baliabide batzuk: familia-elkargunea (FE) gizarte-zerbitzuen alorrean, epaileak aginduta

Galde-sorta digitalak, 2013an, adierazleei buruzko lantaldeak ezarritako berrikuspenaren eta sei eremu horietan egindako ekarpenen emaitza da.

- Tokiko protokoloen atalaren aldaketa:
 - Tokiko protokoloei buruzko azalpena erantsita, honako dokumentu hau eskuratzen dela: “Etxeko tratatu-txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibide-gida” (agertuko den leihoa aktibatzeko botoia, azalpen-testu batez, eta dokumentu osoa eskuratzeko aukera).
 - Galderak egitean eta erantzun-kategoriak ematean hobetzea.

- Genero-ikuspegia aintzat hartzen duen hiri-diagnostikoaren baliabideari buruzko atal berri bat zabaltzea.
- Berdintasunari buruzko ordenantzaren baliabideari buruzko atal berri bat zabaltzea.
- Aldaketak emakumeen aurkako indarkeriari emandako arretari buruzko datuen atalean (aholkularitza juridikoaren eta arreta psikologikoaren blokeetan). Honako hauek dira aldaketa adierazgarrienak:
 - Sexu-indarkeriariako kasuei buruzko galdera gehiago sartzea
 - Arreta jaso duten emakumeen adinari buruzko galdera gehiago sartzea

Aldaketa horietatik, azkena jasota dago, halaber, seihileko datuak biltzeko inprimakian (galde-sorta horrek ez du baliabideei buruzko galderarik egiten). Horrez gainera, arreta-datuen kategorian beste aldaketa bat dago harrera-baliabideetan:

- Arreta jasotako emakumeen seme-alaben adinari buruzko galderak sartzea (adingabeen eta adindunen artean bereiztea).

Bi galdera-sortek eranskin gisa daukate dokumentu hau: “Emakumeen aurkako indarkeria. Proposamen terminologikoak”², kontzeptuak erabiltzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta datu-bilketan prozedura homogeneoak onartzearen garrantziari buruzko erreferentzia emateko.

² Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak egindako dokumentua.

Baliabideen mapa

Genero-indarkeriaren eremuko baliabideen mapak —BGIBren webgunean dagoenak— genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat Bizkaian dauden arreta-baliabideei buruzko informazio zehatza ematen du.

Mapa aldizka eguneratzen da, eta aldian behin datu-basean sartzen dira beste prestazio batzuekin eta harremanekin lotutako berriak. Horrenbestez, 2013an, baliabideak handitu dira Berdintasunerako tresnak kategorian:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-ordenantzak.
- Genero-ikuspegia aintzartzen duten hiri-diagnostikoak.

Baliabidea zazpi ataletan egituratuta dago, eta emakumeen aurkako indarkeria-egoerei arreta emateko zerbitzuei buruzko datu hauek biltzen ditu:

1. Erakundearen datuak
2. Indarkeriaren aurkako zerbitzu espezializatuak
3. Gizarte-baliabideak
4. Polizia-baliabideak
5. Baliabide judizialak
6. Osasun-baliabideak
7. Elkartek eta berdintasunerako tresnak, azken horiek zortzi kategoriatan sailkatuta daudenak:
 - berdintasun-planak,
 - indarkeriaren aurkako plan eta programak,
 - tokiko koordinazio-protokoloak,
 - berdintasun-kontseiluak,
 - jabe-kuntza-eskolak,
 - emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-ordenantzak,
 - genero-ikuspegia aintzartzen duten hiri-diagnostikoak.

Maparen bidez, aintzartzen dituen baliabideen funtzionamendua eta deskribapena hedatzen da, eta erabiltzaileek bilatu nahi dituzten datuak lor daitezke honako aukera hauek baliatuta:

- A. Udaletako fitxak: mapa grafikoan edo zerrendan udalerri bat hautatu ondoren, aukeratutako udalerrian dauden baliabideei buruzko informazio-fitxa bat erakusten du sistemak.
- B. Baliabideen zerrenda: hiri bilaketa-aukerek lotutako zerrendak eskura ditzakegu:
 - Mapan jasotako baliabide guztiak, udalerri guztietakoak;
 - Aukeratutako udalerriko baliabide guztiak;
 - Aukeratutako arloetako baliabide guztiak, udalerri guztietakoak.

Datuen arteko erlazio gisa ateratako erantzunak Excel formatuan jar daitezke, mapan bertan dagoen aplikazio baten bidez. Tresna horren xedea da honako kolektibo hauek behar duten laguntza ematea:

Genero indarkeriaren arloko baliabideen mapa

Aukeratu



Baliabideen bilatzaile

- Ekintza-eremua arreta-zerbitzuetan duten langile eta erakundeak; izan ere, herri bakoitzean dauden baliabideei buruzko informazio osoa ematen du eta genero-indarkeriaren arloan indarrean dagoen araudia (planak, programak edo udalerriek eta mankomunitateek ezarritako protokoloak) azter daiteke.
- Indarkeriaren arazoak ukitutako erabiltzaileak, laguntza-baliabideei buruzko informazioa eta harremanetan jartzeko datuak ematen baititu.
- Politika publikoen arduradunak, egiaztatutako datuen eta informazioaren bidez egungo egoera zein den jakin dezaketelako, eta, hortaz, esku hartzeko estrategia berriak ezar ditzaketelako.
- Herritarrak eta komunitatea, baliabideak identifikatzen direlako.


Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

Genero-indarkeriaren alorreko baliabideen mapa, 2013

Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean dauden baliabideen atlasa

Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean dauden baliabideen atlasa 16 mapa dira, aurretik 7 portada dituztela, oro har. Haietako bakoitzaren gainean txertatzen da genero-indarkeria egoeretan arreta emateko zerbitzuei buruzko informazioa, bai eta adierazitako eremu bakoitzeko erakundeek (udalerriaren eta/edo gizarte-zerbitzuen mankomunitatearen arabera, eta foru-eskualdeen eta azpieskualdeen arabera) esparru sozial, polizial eta judizialean aplikatzen dituzten berdintasunerako tresnak ere.

2013an tresna horren berrikuntza sakonari ekin zaio, eta horrek eragina izan du baliabide-sarearen hedapenean. Horrenbestez, gizarte-alorreko berariazko baliabideez gainera, eremu polizial eta judizialekoak ere hor daude. Edukien zabaltzea dela-eta, aldaketak egin behar izan dira atlasaren egituraren eta diseinu grafikoan.



Horren guztiaren ondorioz, egituraren aldetik, lau mapa gehiago jarri dira: bi esparru polizialerako eta beste bi esparru judizialerako. Diseinu grafikoari dagokionez, maparen azala aldatu da; izan ere, tarteko portada sortu da esparru sozialerako, honako arlo hauetara sartzeko: planak, koordinazioa, harrera, laguntza psikologikoa eta aholkularitza juridikoa. Elkarreragingarritasun handiagoa ematea helburu hartuta, orri bakoitzean botoi gehiago jarri dira, atalak elkarrekin lotzeko; hartara bideratzen da, adibidez, eremu bereko mapa batetik beste batera igarotzea, atal bakoitzaren hasierako portadara itzuli gabe.

Halaber, aldagaien adierazpena optimizatu da, esate baterako, jarduerak hasitako urtea (esparru sozialean: arreta psikologikoa, aholkularitza juridikoa eta harrera) eta asteroko arreta-orduak (esparru sozialean: arreta psikologikoa eta aholkularitza juridikoa). Horiek guztiak tarteen arabera adierazten dira eta kolore-gradazioak aplikatzen zaizkie, ikusgarriagoak izan daitezen, erakunde bakoitzaren zuzeneko datuari eustez gainera.

Amaitzeko, tresna horri utilitate berri bat erantsi zaio: Baliabideen atlasa osatzen duten mapetan jasotako informazio guztia eskura daiteke testu-formatuan, datu-taulen eta zerrenden bidez, erabiltzaileei gordetzeko aukera emateko, edo PDF formatuko dokumentua zabaldu eta inprimatzeko,

Atlasean gordeta dago Bizkaiko udalerriei buruzko informazioa eta Behatokiaren webgunetik sar gaitzeko atlasera. Han jasota dagoen informazio guztia bost bloketan antolatuta dago:

ESPARRU SOZIALA

■ Planak

- Bizkaiko udalerrietako eta mankomunitateetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak, edizioaren arabera. 2013
- Bizkaiko udalerrietako eta mankomunitateetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak, teknikari espezializatuen arabera, figura hori zer urtean sortu zen kontuan hartuta. 2013

- Bizkaiko udalerrietako eta mankomunitateetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak, onetsitako urtearen arabera. 2013
- Koordinazioa
 - BERDINSAREA, berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarea. 2013
 - Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei arreta hobe emateko toki- eta eskualde-protokoloak. 2013
- Harrera
 - Bizkaiko Lurralde Historikoan indarkeriaren biktima diren emakumeei harrera egiteko baliabideak. 2013
 - Bizkaiko Lurralde Historikoan indarkeriaren biktima diren emakumeei harrera egiteko baliabideak, zer urtean sortu ziren kontuan hartuta. 2013
- Laguntza psikologikoa
 - Bizkaiko Lurralde Historikoko arreta psikologikoko zerbitzuak. 2013
 - Bizkaiko Lurralde Historikoko arreta psikologikoko zerbitzuak, jarduerak zer urtetan hasi ziren kontuan hartuta. 2013
- Aholkularitza juridikoa
 - Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako aholkularitza juridikoko zerbitzuak. 2013
 - Bizkaiko Lurralde Historikoko aholkularitza juridikoko zerbitzuak, jarduerak zer urtetan hasi ziren kontuan hartuta. 2013

ESPARRU POLIZIALA

- Akordio polizialak
 - Ertzaintzaren eta udaltzaingoen arteko etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren alorreko akordio polizialak Bizkaiko Lurralde Historikoan, akordio-motaren arabera. 2013
 - Ertzaintzaren eta udaltzaingoen arteko etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren alorreko akordio polizialak Bizkaiko Lurralde Historikoan, sinatutako urtearen arabera. 2013

ESPARRU JUDIZIALA

- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak Bizkaiko Lurralde Historikoan, barruti judizialaren eta sortutako urtearen arabera. 2013
- Acuerdos Policiales en materia de violencia doméstica y de género entre la Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ) Bizkaiko Lurralde Historikoan. 2013

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean dauden baliabideen atlasa, 2013

Bizkaiko Lurralde Historikoko zifrak

“Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizarte-babesaren, poliziaren eta justiziaren arloak” txostenak hiru jardueraren horietan diharduten erakunde publikoek emandako informazioa biltzen du, eta 2013ko edizioak 126 informazio-iturri baliatu ditu: Lurraldeko 112 udalerrri eta 9 mankomunitate; Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saila (Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua); Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea; Eusko Jaurlaritzako Segurtasun

Saila, Azterketa Arloaren bidez; Herri Administrazio eta Justizia Saila, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren (BLZ) bidez; eta Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua (BJABO).

Gainera, beste dokumentazio-iturri batzuetara ere jotzen dugu prozesu judizialei buruzko datuak (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia) eta auzitegiko medikuen arretari buruzkoak (Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea) biltzeko.

Txostena bi bertsiotan argitaratzen da, eta Behatokiaren webgunean eskura daiteke:


- Dokumentu osoa; honako elementu hauen zerrenda jasotzen du:
 - Azterketa-dokumentua(k)
 - Sintesia
 - Terminoen glosarioa
 - Datu-iturriak
 - Datu-taulen eranskina
 - Dokumentu-eranskina (emakumeen aurkako indarkeriari buruzko proposamen terminologikoa, erakundeen arteko akordioaren Jarraipen Batzordeak adostua)
- Azterketa-dokumentuak eta datu-taulak jasotzen dituzten dokumentuak (pdf eta xls), gaika antolatuta:
 - Azterketa deskribatzailea jasotzen duten 3 dokumentu (gizarte-, polizia- eta justizia- arloak)
 - Datu-taulak (xls) jasotzen dituzten 10 liburu
 - Datu-taulak (pdf) jasotzen dituzten 10 dokumentu
 - pdf mapak (esparru poliziala)

Egiturari dagokionez, hiru kapitulutan banatzen da dokumentua:

■ GIZARTE-BABESAREN ARLOA

Kapitulu horretako azterketak eta datu-taulek honako alderdi hauei buruzko informazioa jasotzen dute: harrera (larrialdi-zerbitzua, epe ertaineko edo luzeko arreta-zentroaketa -pisuak), aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku hartzeko programa espezializatuak, familia-elkarguneak, telefono bidezko arreta, etxebizitzaren alorreko laguntzak eta laguntza ekonomikoak.

Honako iturri hauetara jo da informazioa biltzeko: Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua; Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrriak eta mankomunitateak –harrerako, aholkularitza juridikoko edo arreta psikologikoko zerbitzuak eta/edo familia-elkarguneak dituztenak–; eta Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea.



■ ARLO POLIZIALA

Ertzaintzak Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriagatik erregistratutako emakume-biktimizazioei buruzko informazioa biltzen dute bigarren atal honetako azterketek eta datu-taulek.

2013ko edizioan arlo honetan jasotako edukia zabaldu da, eta beste bi epigrafe sartu dira, bata biktimizazioen denborazko banaketari buruzkoa, eta bestea segurtasun-neurriei buruzkoa.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Segurtasun Sailburuordetzara jo dugu gai horri buruzko informazioa biltzeko.

■ ARLO JUDIZIALA

Honako hauei buruzko informazioa biltzen da arlo honetako azterketetan eta datu-tauletan: emakumeen aurkako indarkeriaren arloko prozesu judizialak, Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ), abokatu-laguntzako ofiziozko txanda espezifikoa eta auzitegi-medikuen arreta.

Honako iturri hauetara jo dugu informazioa biltzeko: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (dokumentazio-iturria); Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saila, BLZren bidez), Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua; eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea (dokumentazio-iturria).

Edizio honetan, berrikuntzak eta hobekuntzak egin dira edukietan eta datuak aurkezteko moduan, batez ere gizartean esku hartzeko programekin lotura duten arloetan. Datu-taula berriak egin dira, bereziki aholkularitza juridikoa eta laguntza psikologikoa emateko udal-programetan arreta jaso duten sexu-indarkeria kasuen ezaugarriei buruzko urteko datuen berri emateko, bai eta baliabideetan (harrera, familiako esku-hartze espezializatua, familia-elkarguneak...) arreta jasotako adingabeen ezaugarriak adierazteko ere. Halaber, beste hobekuntza batzuen artean, etxebizitzaren alorreko laguntzei buruzko informazio zabalagoa eman dugu.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

“Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizarte-babesaren, poliziaren eta justiziaren arloak (2012)”

Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta-baliabideen eta programa espezifikoaren katalogoa: Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan

Etxeke indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideei eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideei buruzko txostena argitaratzen du Behatokiak urtero.

Txosten hori egiten da, hain zuzen, Bizkaiko Foru Aldundiak eta toki-erakundeek emandako datuak oinarri hartuta.

Datu horien bidez, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko bidean Bizkaia dituen hainbat prestazio publikoen berri dugu: harrera, aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, familiako esku-hartze espezializatua eta familia-elkarguneak. Baliabide horiez gainera, programa berri bat abian jarri du Bizkaiko Foru Aldundiak 2013an, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak kudeatuta:

■ Laguntza sozialeko agenteen sarea.


Katalogo hori Behatokiaren webgunean dago, eta azken edizioan (2013) sei ataletan banatutako edukiak ditu:

- Harrera-baliabideak
- Aholkularitza juridikoko baliabideak
- Laguntza psikologikoko baliabideak
- Familietan esku-hartze espezializatua gauzatzeko baliabideak
- Familia-elkarguneak
- Laguntza sozialeko agenteen sarea

Atal bakoitzaren hasieran gai-mapa bat ageri da, gutxi gorabehera baliabide horiek populazioaren zer zati estaltzen duten azaltzeko. Zenbait aukera grafikoren bidez adierazten dira, baliabidearen titular den erakundearekin bat etorritik: Bizkaiko Foru Aldundia, batetik, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriak eta mankomunitateak, bestetik.

Aholkularitza juridikoari buruzko atalak, arreta psikologikoari buruzkoak eta familiako esku-hartze espezializatuari buruzkoak honako informazio hau biltzen dute:

- Zer erakunde den baliabidearen titular (harremanetan jartzeko datuak)
- Baliabidearen helburu orokorrak eta garatuko den esku hartzeko programa
- Zer kolektiborentzat den
- Kudeaketa-mota
- Arreta-orduak hilean
- Zenbat langilek ematen duten zerbitzua
- Beste datu interesgarri batzuk (adibidez, zerbitzua noiz abiarazi zen)
- Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko telefonoa
- Arreta-egunak eta ordutegia
- 2012ko erabiltzaile-kopurua, sexuaren arabera sailkatuta
- Indarkeriaren ondorioz (tratu txarrak eta sexu-erasoak) 2012an artatutako emakumeen kopurua, zein diren kasu berriak eta zein lehenagokoak adierazita



Harrera-baliabideei dagokienez, honako gai hauei buruzko informazioa dago:

- Zenbat baliabide dauden
 - Pisu-kopurua
 - Plaza-kopurua
- Pisu-mota
 - Aldi baterako harrera
 - Larrialdi-harrera
- Zerbitzuaren kudeaketa-mota
- Babesteko/laguntzeko programa
- Pisuari atxikitako langileak
- Beste datu interesgarri batzuk (adibidez, zerbitzua noiz abiarazi zen)
- Zenbat pertsonari egin zitzaien harrera 2012. urtean, honako kolektibo hauek bereizita:
 - Emakumeak
 - Emakume horien seme-alabak, sexuaren eta adinaren arabera (</> 18 urte)
 - Emakume horien mendeko pertsona helduak

Epaileak agindutako familia-elkarguneko zerbitzuei dagokienez, honako alderdi hauei buruzko galderak egiten dira:

- Programaren izena
- Helburu orokorrak
- Zer zerbitzu ematen dituzten
- Zer kolektiborentzat den
- Kudeaketa-mota
- Zenbat langilek ematen duten zerbitzua
- Arreta zuzeneko egunak eta ordutegia
- Programan sartzea
- Araudia
- Beste datu interesgarri batzuk
- 2012ko kasuen kopurua guztira, familien eta adingabeen kopuruen arabera bereizita
- Babes-agindua duten kasu guztien kopurua, emakumeen eta adingabeen (sexua aintzat hartuta) kopuruaren arabera bereizita

Laguntza sozialeko agenteen sareari buruzko atala 2013an erantsi da, eta honako alderdi hauei buruzko informazioa ematen du:

- Programaren izena
- Helburu orokorrak
- Garatuko den esku hartzeko programaren deskribapena
- Zer kolektiborentzat den
- Kudeaketa-mota
- Inplikaturako elkarten kopurua
- Sarean dauden gizarte-agenteen kopurua
- Programan sartzea
- Beste datu interesgarri batzuk

“Emakumeen aurkako indarkeria. Proposamen terminologikoak” txostena eranstean zaio, Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak onartua.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

“Etxean indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak: harrera, aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku hartzeko programa espezializatuak, familia-elkarguneak eta laguntza sozialeko agenteen sarea (2013)”

Udalerrietako Informazio Orria

Behatokiak sei hilean behin biltzen ditu indarkeriaren biktimak diren emakumeei arreta emateko beren baliabideak dituzten udalerrien eta mankomunitateen datuak, toki-erakundeetan emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak biltzeko prozedurak sistematizatzea bultzatzeko, eta erregistratutako kasuei buruzko jarraipena egiteko.


Seihileko datu-bilketa egin ostean, prozesuan parte hartu duen erakunde bakoitzari bana-banako txostena bidaltzen zaio. Txosten horiei Udalerrietako Informazio Orria esaten zaie. Bakoitzaren zerbitzuei buruzko informazio egituratua biltzen dute, udalaz haraindiko erakundeek emandakoaz gainera (Foru Aldundiko eta Autonomia Erkidegoko baliabideen bitartez arreta jasotako udalerriko emakumeak, alegia).

2013an, irailean hasita gauzatu zen seihileko datu-bilketa; 28 txosten egin genituen, etazegozkien erakundeei igorri (22 udalerri eta 6 mankomunitateri); alegia, prozesu horretan parte hartu zuten erakunde guztiei. Txosten horietan, aztertutako aldiaren baliabide horiek indarkeriaren biktimak diren zenbat emakumeri lagundu dieten adierazten duten datuak biltzen dira, 2013ko lehenengo seihilekoari dagozkionak; hau da, zenbat emakume artatu diren gizarte-arloko, arlo polizialeko eta arlo judizialeko baliabideetan (udalerrienak eta foru-aldundiarenak kontuan hartuta).

Bi ataletan banantzen dira dokumentuak; batean, seihilekoari dagozkion datuan biltzendira —tauletan, irudietan eta grafikoetan—, eta, bigarrean, aurreko urteetako emaitzen aldean izan den bilakaera, Behatokiak erregistratutako datuen arabera.

Udalerrietako Informazio Orriak honako egitura hau du:

- A. Testuinguruari buruzko datuak
- B. Udalerriari edo mankomunitateari buruzko datuak
 - I. Esparru soziala
 - I.1. Udalerrien baliabideak
 - I.1.1. Harrera
 - I.1.2. Aholkularitza juridikoa
 - I.1.3. Laguntza psikologikoa
 - I.1.4. Familia-elkargunea
 - I.2. Foru Aldundiaren baliabideak
 - I.2.1. Larrialdi-harrera
 - I.2.2. Epe ertaineko edo luzeko egonaldiako harrera
 - I.2.3. Aholkularitza juridikoa
 - I.2.4. Laguntza psikologikoa
 - I.2.5. Familiako esku-hartze espezializatua
 - I.2.6. Familia-elkargunea
 - 2. Esparru poliziala
 - 3. Esparru judiziala
 - 3.1. Babes-aginduak
 - 3.2. Salaketak eta uko egiteak



Ekitaldi honetan eutsi diogu 2012an hartutako konpromisoari, erakunde parte-hartzaileei eskatu genienean datuak garai egokian emateko, Udalerrietako Informazio Orriak azaroaren 25a baino lehenago helarazteko, A-25 Nazioarteko Eguneko hausnarketak eta ekitaldiak bideratze aldera.

Udalerrietako informazio-orriaren balioespena

Halaber, 2013an egoki iruditu zaigu, seihileko txostenak direla-eta, toki-erakundeen balioespenaren berri izatea. Horrenbestez, 2010ean sortutako ekimenaren ildoari heldu diogu berriro, bi helburu hauek aintzat hartuta: erakunde hartzaileek Udalerrietako Informazio Orriari buruz duten iritzia jakitea eta balioespen horrek izan duen bilakaera adierazten duen alderaketa egitea.

Helburu horiek kontuan hartuta, 2010ean erabilitako galde-sorta baliatu da, behar bezala eguneratuta eta berrituta. Galde-sorta horretan, seihileko txostenak udal-ingurunean (teknikarien eta politikarien artean) izan duen hedapenari buruzko galderak egiten dira, eta erakundeek jasotzen duten txostenean hobetu daitezkeen alderdiak adierazteko eskatzen da.

Azpimarratzekoa da berrikuntzarako eta hobekuntzarako jardunbidea izan dela prozesu horren ezaugarri nagusia. Horrenbestez, toki-erakundeen zerbitzuan diharduten politikariei eskatu zitzairen balioespena egiteko, kontuan hartuta Udalerrietako Informazio Orriak erantzukizun politikoak dituztenei helaraztea garrantzi handikoa dela, emakumeen aurkako indarkeriak herrian duen egoerari buruzko hausnarketa sustatzeko eta arlo horretan politika publikoak bideratzeko.

On line dokumentu-kudeatzailea

On line dokumentu-kudeatzailea datu-base bibliogarfiko bat da, eta emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitea bultzatzen duten dokumentuak biltzen ditu.

Kudeatzailea hornitzen duen materiala honako lau dokumentu-tipologia hauen arabera sailkatuta dago:

Dokumentu-kudeatzailea

... Bilaketaren emaitzak

ordenantza Bilatu >> Bilaketa aurreratu <<

Izenburua: Urduñako Udalaren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Ordenantza (BAO, 183. zk. 2012/09/ 21) = Ordenanza municipal para la igualdad de mujeres y hombres del Ayuntamiento de Orduña (BOB, n.º 183, 21/09/2012)

Egilea: BIZKAIA. DIPUTACIÓN FORAL

Hizkuntza: Euskera, español

Data: 2012

Emaitzak: 1 Orrialde 1 . Guztira 1

- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako eta mankomunitateetako berdintasun-planak
- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako eta mankomunitateetako emakumeenganako indarkeriaren aurkako programak
- Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei arreta hobe emateko tokiko koordinazio-protokoloak
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko legedia, nazioartean, Europan, estatuan, EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan, eta Bizkaian:

- Legeak
- Dekretuak
- Aginduak
- Erabakiak
- Zuzentarauak
- Txostenak
- Araudiak
- Itunak

2013an Legediaren kategorian sartu dira nazioarteko eta Europako legeak ere, funtsean lehen ez zeudenak. Horrenbestez, hemendik aurrera, kudeatzaileak onartzen ditu lotesleak diren beste legezko xedapen batzuk: erabakiak, zuzentarauak, txostenak, araudiak eta itunak.

ISBD (International Standard Bibliographic Description) arauen egokitzapen bateanoinarrituta deskribatzen dira dokumentuak. Arau horien arabera aztertzen dira dokumentu bakoitzaren ezaugarri formalak eta kanpo-ezaugarriak; dokumentuen deskribapenean sarbide modura zehaztu diren arloei erreparatu zaie arretaz, sarbide horietatik ateratzen baita dokumentuen funtsean dauden erregistroak katalogatzeko eta antolatze behar den informazio objektiboa.

Informazio-unitateak honako arlo hauetan mailakatzen dira:

- Egilea
- Izenburua
- Dokumentu-mota
- Beste erantzukizun-aipamen batzuk
- Edizioa
- Hizkuntza
- Edizioa
- Argitaletxea
- Argitaratutako urtea
- Maiztasuna (aldizkako argitalpenak badira)
- Seriea

- Oharrak
- Zenbaki normalizatuak edo sinboloak:
 - ISBN
 - ISSN
 - NIPO
 - DL
 - Sinboloa
- Laburpena
- Deskribatzaileak

On line dokumentu-kudeatzailea baliatuta, bilaketak egiteko bi aukera daude:

Bilatzaile arrunta

Testu-kutxan hitz bat edo batzuk jartzen baditugu, galde egin d(it)ugun dokumentuaren edo dokumentuen erreferentzia emango digu bilatzaileak.

Bilatzaile aurreratua

Bilaketa xehatuagoa eta zehatzagoa egin nahi badugu, hitz bat baino gehiago jarriko ditugu bilatzaile aurreratuko testu-kutxetan. Tresna informatikoak dokumentuaren fitxa kartografikoa emango digu orduan; fitxak horrekin lotutako ale digitala erantsita dauka, eta hori ikusi edo behera karga dezakegu.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

[Dokumentu-kudeatzailea](#)

Urtearen hasieran ekin genion prozesuari, adierazleen lantaldeko kide bakoitzari galdera-sorta bidali baikenien, BGIBren buletinari buruz zuten ikuspegia jakiteko eta hobetzeko proposamenak egitera gonbidatzeko.

Haien erantzunak aztertu ondoren, jorratzeko moduko gai berriak identifikatu ziren, edukiari dagokionez, proposamen sinkretiko bat prestatzeko lagungarriak izan zirenak, adierazleei buruzko lantaldearen koordinatzaileak proposatutakoekin eta Behatokiko Idazkaritza Teknikoak aurkeztutakoekin batera. Horren guztiaren emaitza 29. edizioan ikusi zen (ekaineko zenbakian, alegia).

Atalen egiturari eta edukiei dagokionez, buletinaren bost ardatzei —hasierako lau atalak eta “Sarean” 2010ean gehitu zena— eutsi diegu (“Gaiak”, “Behatokia”, “Tresnak”, “Sarean” eta “Kontuan hartu”). Hala ere, atal horietako bitan ohiko gaiak txandakatu ditugu beste diziplina eta hedapen batzuk ere kontuan hartuta. Horrenbestez, gaian adituak diren kolaboratzaileek parte hartu dute, eta interesa sortzen duten gai berriak sartu ditugu (esate baterako, adierazpen artistikoak).

Atal berri bat sortu da, IKUSPEGIAK, portadan edo hasierako orrialdean kokatua, Bizkaiko Lurralde Historikoko edo EAEko berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko argitalpen digital batzuekiko loturak dituen; zehazki: *Berdintasuna*, *Emakunde*, *Beldur Barik*, *Nahita*, *Emeki*, *Pikara online Magazine*.

Aldatu da BGIBren buletinaren orri-oina (30. zenbakitik aurrera) eta horrenbestez irakurleei dei egiten zaie argitalpenean jorratzeko gaiak iradoki ditzaten.

Diseinu grafikoaren atalean, edukiak zabaltzearen ondorioz aldaketak egin behar izan dira egitura egokitzeko; testua aurkezteko elementu grafikoak eta ilustrazioak berriro dira; buletinaren portada aldatu da, orrialdearen egiturari, testuaren banaketari eta irudien tamainari dagokionez; halaber, artikuluen euskarri diren txantiloietan aldaketak sartu dira orrialdeen formatuan, goiburuan, testu nabarmenduetan eta irudien tamainan.

Amaitzeko, 2013an buletina berritzeko ekindako prozesuan argitalpenaren banaketarekin lotutako hobekuntza ere egin dugu: ohar bat diseinatu da zenbaki berri bakoitza posta elektronikoz hedatzeko. Ohar horretan zenbait lotune ageri dira, buletinaren portadara eta artikuluetara sartzeko; horrenbestez, posta elektronikotik bertatik argitalpenaren atal bakoitzera sartzeko aukera ematen du.

sartu	accede
BGIB Buletina	Boletín OVGB
2013 Abendua 31 - Zenbakia	Diciembre 2013 Número - 31
Gaiak / Temas	
Traiti txarrak ematen dituzten gizonak eta beraien aita-eginkizuna: arriskioak eta erreakzioak. Autoretza: Raül Lizana Zamudio	
Los hombres maltratadores y su rol de padres: riesgos y desafíos. Autoria: Raül Lizana Zamudio.	
Behatokia / El Observatorio	
Emakumeen aurkako indarkeria-kasu gero eta gehiago erregistratzen dira zerbitzu publikoetan	
El registro de casos de violencia contra las mujeres mantiene su progresión en los servicios públicos	
Tresnak / Herramientas	
Lege-erreformen biktinak ote dira adin txikikoak? Autoretza: Juana Balmaseda Ripero	
Menores ¿Víctimas de las reformas legales? Autoria: Juana Balmaseda Ripero	
Sarean / En red	
Beldur Barik! 2013 amaitu berri dela-eta	
A la conclusión de Beldur Barik! 2013	
Kontuan / Toma nota	
EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA. Hezkuntza-sisteman hezikideta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana	
beste batzuk...	
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA DEL GOBIERNO VASCO. Plan Director para la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo	
otros...	

BGIBren buletinak 2013an landu ditu gai eta adituen kolaborazio hauek:

Izaskun Landaia, Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendari izendatu berria zenean, elkarrizketatu genuen 2013ko lehen zenbakian. Halaber, denbora eta iritzia eman ziguten honako kolaboratzaile hauek: Ane Alonso, HiriaKolektiboako arkitektoa, hiri-diagnostiko parte-hartzaileak hizpide hartuta; eta María Naredo, Argituz giza-eskubideen aldeko elkarteko kidea eta abokatua. Miren Urrestik, Arratiako Mankomunitateko berdintasun-teknikariak, bere iritzia ematen digu “Sarean”.

Argitalpenak itxura berritua adierazi zuen ekainean: “Gaiak” atalean ekin zion emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta emateko Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzu eta programak laburbiltzeari, Gizarte Ekintzako Sailak emandako informazioa oinarri hartuta; gero “Behatokia” atalean txosten hau aurkeztu zuen: “Etxeko indarkeria eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak: harrera, aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku hartzeko programa espezializatuak, familia-elkarguneak eta laguntza sozialeko agenteen sarea. Bizkaiko Lurralde Historikoa, 2013”. Euskal filologo eta idazle Josune Muñoz izan zen “Iritzia” azpiatal berrian agertu zen lehen kolaboratzailea, honako iruzkin kritiko hau eginez: *Fifteen shades of Grey* (E. L. James) desmuntatzen. Begoña Zugadik, Sestaoko Udaleko berdintasun-teknikaria, ber ikuspegia argi eta garbi azaldu zuen “Sarean”.

30. zenbakian, Susana Álvarez-Buylla (psikoterapeuta) eta Concepción Méndez (soziologoa) espezialistak, biak ere gizarte-langileak, botereek eragindako genero-indarkeriari buruz mintzo ziren; honako argitalpen hauen laburpenak egin ziren: “Bizkaiko Genero-indarkeriaren Behatokiaren Ebaluazioa, 2009-2012 epealdia” eta “Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenen II. Txostena”; Andrea Gautier eta Marina Lorenzo, Smiz and Pixel produktorako parte-hartzaileak, emakumeen aurkako sexu-indarkeriak zinematografian egindako ibilbidea azaldu zuten; eta Ana Velascok, Enkarterriko Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuen koordinatzaileak, bere ekarpenak helarazi zituen Udal Harremanetarako Sareari buruzko atalean.

Urteari agur esateko, Raúl Lizana psikologoaren eta Juana Balmaseda juristaren azalpen engaiatuak izan genituen, honako kolaborazio haien bidez: “Tratu txarrak ematen dituzten gizonak eta berauen aita-eginkizuna: arriskuak eta erronkak” (“Gaiak” atalean) eta “Lege-erreformen biktimak ote dira adin txikikoak?” (“Tresnak/Iritzia” atalean); “Behatokia” atalean berriz, “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizarte-babesaren, poliziaren eta justiziaren arloak, 2012” txostenean bildutako datu estatistiko deigarrienak azaldu ziren; eta “Sarean” atalean Beldur Barik! 2013 programak saritutako obren aipamen berezia egin zen.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

BGIBren buletinaren 28. zenbakia

BGIBren buletinaren 29. zenbakia

BGIBren buletinaren 30. zenbakia

BGIBren buletinaren 31. zenbakia

II. txostena: Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeek buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak

2013an amaitu da gomendioak egiteko prozesua, 2012an egindako plangintza-fasearen bidez hasi zena; izan ere, I. txostenean (2004-2008) jasotako gomendioen jarraipenari buruzko azterketaren ondorioz, egiturari eta edukiei buruzko proposamena egin zen, eta 2012an proposamen hori landu zen.

Las nueve reuniones (octubre de 2012-junio de 2013) mantenidas Adierazleen lantaldeak bederatzi bilerak egin zituen 2012ko urrian hasi eta 2013ko ekainera bitartean, eta haien emaitza izan da “ II. txostena: Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeek buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamena”, 2013ko iraileko osoko bilkuran onetsi zena.



Txostenak, lehen txosteneko prebentzioari eta arretari buruzko hausnarketa-ardatzei jarraipena emanez, 109 gomendio egiten ditu interesa eragiten duten hiru arlo hauetan:

Prebentzioa

- a. Berdintasun-politikak eta genero-ikuspegia
- b. Emakumeen jabetasuna
- c. Beste batzuk

Errealitatearen ezagutza

- a. Datuen erregistroa eta jarraipena
- b. Ikerketa eta hedapena

Arreta

- a. Arreta-zerbitzuak
- b. Profesionalen prestakuntza
- c. Erakundeek koordinazioa

Prebentzioa

Txostenean jasota dauden lehen 19 gomendioen oinarrian dagoen ikuspegia honako hau da: desberdintasunak betikotzen dituen gizarte-egitura, emakumeen aurkako indarkeria muturreko adierazpen duena, eraldatu ahal izateko ezinbestekoak dira emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko duten politikak, eta emakumeen jabetasunaren oinarritutako neurriak ekitea, gizartean eta politikan gehiago parte har dezaten.

Errealitatearen ezagutza

20tik 39ra bitarteko gomendioek honako gai hauei buruzkoak dira, besteak beste: zerbitzu publikoetako datuak hobeto erregistratzea (erabiltzaileen kopuruari buruzkoak, eskaerei buruzkoak, edo ematen zaaien laguntza-motari buruzkoak); arreta-zerbitzuetako langileek erabiltzeko esparru terminologiko eta kontzeptual komun bat sendotzeko premia, erakunde desberdinek bildutako informazioak bildu eta parekatzeko modukoak izan daitezken; erabiltzaileek eta arreta ematen duten profesionalen lantaldeek adierazitako gogobetetze-maila jakitea; eta gaur egun informazio-iturritzat hartzen ez diren erakundeetatik (elkarteetatik) datozen datuak agerian jartzea.

Arreta

Indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako (eta haien seme-alaba biktimentzako) arreta-baliabideen murrizketarik ez egitea, eta arreta osoa, espezializatua, doakoa, berehalakoa, eskuragarria eta hurbilekoa bermatzea, jabetasuna helburu hartzen duena, eta genero-ikuspegitik egina.

Gomendio horien bidez hasten da kapituluaren lehenengo azpiatala, arreta-zerbitzuak aztertzen dituen, 40tik 109ra bitarteko gomendioak emanez, eta ondorengoetan orientabideak ematen dira biktimei arreta ematen diharduten esparruetako profesionalen prestakuntza koordinatua, hasierakoa eta etengabea, bultzatzeko, esparru sozialean, polizialean, judizialean, sanitarioan eta hezkuntzan diharduten profesionalak aintzat hartuta. Testuinguru horretan, argigarria izango litzateke ikasketa-planetan ematen den prestakuntza aztertzea, eta aipatutako sektore horien gaur egungo gaikuntzari arretaz erreparatzea.

II. txostena amaitzeko, orokorrean ezarritako protokoloei ete tokiko protokoloei buruzko gomendioak egiten dira, biktimei arreta hobe emateko. Txostenaren banaketa digitala bideratzeko egindako berariazko edizioa eskura dago BGIBren webguneko DOKUMENTUAK atalean.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

II. txostena: Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak

BGIBren ebaluazioa (2009-2012)

2013an amaitu da BGIBren 2009-2012 epealdiko jarduerak ebaluatzenko prozesua, 2012ko ekitaldiaren amaieran hasi zena.

Behatokiak epealdi horretarako egindako Lan Planak kontuan hartzen zuen erakundea sendotze-etapako funtzionamendua eta jarduerak ebaluatzea, eta ebaluazio horrek bi analisi hauek izan ditu ardatz: alde batetik, xedeak eta prozesuak; eta bestetik, edukiak eta emaitzak.

Lehenengo atalaren helburuak honako hauek ziren: BGIBren emaitzen sendotzea aztertu, egindako jarduerak Behatokiaren proposamen orokorrarekin alderatu, ikasitakoa aztertu eta akatsak zuzendu, eta BGIBren egokitasuna aztertu, aurreikusitako emaitzak lortzekari begira. Edukien eta emaitzen analisiaren bidez, Behatokiaren esku-hartzeen inpaktua, eraginkortasuna eta alderdi berritzaileak aztertu nahi ziren, halaber emaitzak egokitzeko eta hobetzeko proposamenak egiteko.



Horrenbestez, ebaluazioaren helburu nagusia izan da 2009-2012 epealdirako Lan Planean sendotze-etaparako definitutako hiru ardatz estrategikoetan aintzat hartutako ekintzak aztertzea.

Horretarako, aurreko ebaluazioaren ildoari jarraitzean, 2004-2008 epealdia ebaluatzenko metodologia berari jarraitu diogu. Hau da, BGIBk sortutako dokumentazioa berrikusi da, proiektuan parte hartzen duten pertsonen eta erakundeen ikuspegiak aztertu dira, eta erakundeak sortutako materialak eta tresnak erabiltzen dituztenen balioespenak ere aintzat hartu dira:

- Erakundeak sortutako dokumentazioa aztertzea (urteko memoriak, Osoko Bilkurak eta adierazleei buruzko lantaldeak egindako bileretako aktak, erakundeak parte hartutako prozesu bakoitzeko txostenak eta proiektuaren koordinazioari eta funtzionamenduari buruzko testuak).
- Behaketa parte-hartzailea (osoko bilkurak eta adierazleei buruzko lantaldearen bilerak); Behatokiaren jarduerari buruzko dibulgazio-ekintzak: Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuari dagozkion zerbitzu, programa eta prestazioei buruz informazioa hedatzeko prestakuntza-jarduerak.
- Osoko Bilkurako, adierazleei buruzko lantaldeko eta Udal Harremanetarako Sareko kideei galdetegiak igortzea honako gai hauek aztertzeko: xedeen betetze-maila, eginkizunak, lan-prozesua, BGIBk sortutako produktuen balioespena, eta Behatokiaren hedapena eta etorkizuna.
- BGIBren idazkari eta adierazleen lantaldearen koordinatzaile Berta Díaz Arbesú andreari egindako elkarrizketa.
- Behatokiaren webgunera sartu diren pertsonen on line galde-sorta betetzea.

Parte-hartzeari dagokionez, erantzun-indizea % 90,5 izan da Osoko Bilkuraren kasuan, eta % 93 adierazleen lantaldean (bi kasuetan, ebaluatutako epealdiko uneren batean titular izan diren guztiak erreferentziatzen hartuta); erakunde informatzaileen % 69k erantzun dute (Bizkaiko populazioaren % 74 hartzen dute erakunde horiek); eta webgunera sartu diren 56 erabiltzailek ere erantzunak bidali dituzte.

Lau taldeei galdetu ondoren, haien balioespenak kontuan hartu dira, txostenaren amaieran indarguneak, hobetu beharreko alderdiak eta gomendioak azaltzeko.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren ebaluazioa, 2009-2012 epealdia. Emaitzen txostena

BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA
2013KO JARDUERA-MEMORIA